

# EUSKAL KANTAGINTZA: POP, ROCK, FOLK
## LA CANCIÓN VASCA: POP, ROCK, FOLK

04

Jon Eskisabel Urtuzaga

BASQUE.

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

# EUSKAL KANTAGINTZA: POP, ROCK, FOLK

## LA CANCIÓN VASCA: POP, ROCK, FOLK



Jon Eskisabel Urtuzaga

BASQUE.

01
Euskara
La lengua vasca

02
Literatura
Literatura

03
Musika klasikoa
Música clásica

**04**
**Euskal kantagintza: pop, rock, folk**
**La canción vasca: pop, rock, folk**

05
Artea
Arte

06
Zinema
Cine

07
Arkitektura eta diseinua
Arquitectura y diseño

08
Euskal dantza
La danza vasca

09
Bertsolaritza
Bertsolarismo

10
Tradizioak
Tradiciones

11
Sukaldaritza
Cocina

12
Antzerkia
Teatro

**BASQUECULTURE.EUS**
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberek zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

Esta colección creada por Etxepare Euskal Institutua reúne doce disciplinas culturales. Todas ellas están entrelazadas porque comparten lengua, territorio e historia. De la mano de nuestra cultura, te invitamos a ser testigo de la fusión entre tradición y vanguardia, del mestizaje de lo propio y lo foráneo, te invitamos a conocer, en suma, de dónde venimos, dónde estamos y hacia dónde vamos. Este conjunto de libros es un punto de partida cuyo objetivo no es otro que despertar tu curiosidad.

**EUSKAL KANTAGINTZA: POP, ROCK, FOLK**
LA CANCIÓN VASCA: POP, ROCK, FOLK

Jon Eskisabel Urtuzaga

| | | |
|---|---|---|
| 10 | **Sarrera** | **Introducción** |
| 14 | **Ibilbide historikoa** | **Trayectoria histórica** |
| | Hastapenak | Inicios |
| | Kantautoreak, gizartearen ahots | Los cantautores, la voz de la sociedad |
| | Lehen folk eta rock taldeak | Los primeros grupos de rock y folk |
| | Rock erradikalaren hamarkada | La década del rock radical |
| | «Euskalduna naiz eta harro nago!» | «¡Soy vasco y estoy orgulloso!» |
| | Atomizazioa eta autoekoizpena | La atomización y la autoproducción |
| | Post-gatazka aroa | La época postconflicto |
| 34 | **Biografia hautatuak** | **Biografías escogidas** |
| 66 | **Bibliografia** | **Bibliografía** |

Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Irene Larraza Aizpurua
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUKO
ZUZENDARIA

¿Cómo ha logrado la única lengua autóctona de Europa Occidental que no es de origen indoeuropeo ocupar un lugar propio en el siglo XXI? ¿En qué consiste la cultura vasca hoy y en qué se diferencia de otras? ¿Qué presencia internacional merece?

A través de esta colección de libros Etxepare Euskal Institutua quiere proponer una serie de respuestas, con el fin de tender la mano a otras culturas e identidades. Porque conocernos mutuamente es la única manera de apreciarnos y entendernos. Ongi etorri.

Irene Larraza Aizpurua
DIRECTORA DE
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA




# Sarrera

Euskal kulturak oro har, baina liburugintzak eta diskogintzak bereziki, Durangoko Azokan izaten dute urteko hitzordurik garrantzitsuena. 1965. urtean lehen aldiz antolatu zenetik, bi arlo horietan euskaraz egindako sorkuntzaren erakusleiho nagusia da azoka, eta berau da gaur egun Euskal Herrian egiten den kultura-ekitaldirik jendetsuenetakoa ere bai. Abenduko lehen egunetan, Bizkaiko herri horretan, ekoizpen berria zein aurreko urteetakoa bildu, ordenatu eta salmahaietara eramaten dute diskoetxeek, argitaletxeek eta, gero eta kopuru handiagoan, norbere lana editatzea erabakitzen duten sortzaileek, aurretik etenik gabe igarotzen diren milaka bisitarien eskura jartzeko. Urte osoko salmentaren ehuneko handi bat egun gutxi horietan gauzatzen dute batzuek zein besteek. Baina Durangoko Azokaren garrantzia ez dagokio alderdi ekonomikoari bakarrik; sortzaileen eta hartzaileen topagunea ere bada, batzuen eta besteen arteko aurrez aurreko harremana eta elkar ezagutza ere ahalbidetzen du, are gehiago liburu eta disko berrien zuzeneko aurkezpenetarako Ahotsenea izeneko gunea sortu zenetik. Urteko sorkuntzaren ikuspegi orokorra hartzeko talaia egokia izaten da. Horrek denak euskal kulturaren festa bilakatzen du Durangoko Azoka.

Euskal kulturaren sektorerik dinamikoenetarikoa da kantagintza. Etengabe ari dira talde berriak sortzen, diskoak grabatzen eta plataforma digitaletan zintzilikatzen, etengabe ari dira kontzertuak antolatzen Euskal

**1.** Durangoko Azoka.



# Introducción

La cultura vasca en general, pero la producción de libros y discos en particular, tienen en la Feria de Durango una de las citas más importantes del año. Desde que se organizó por primera vez en 1965, la feria es el principal escaparate de la creación en euskera en estos dos ámbitos, y es también uno de los eventos culturales más multitudinarios que se celebran hoy en día en el País Vasco. En los primeros días de diciembre, las discográficas, editoriales y, cada vez en mayor número, creadores y creadoras que deciden editar su propia obra, recopilan, ordenan y trasladan a los estands tanto la nueva producción como la de años anteriores para ponerla a disposición de los miles de visitantes que visitan la feria ininterrumpidamente. Un alto porcentaje de las ventas de todo el año se materializa en estos pocos días. Pero la importancia de la Feria de Durango no solo reside en el aspecto económico, sino que también es un punto de encuentro de creadores y público, posibilita la interrelación y el conocimiento mutuo, más aún desde que se habilitó el espacio Ahotsenea para las presentaciones en directo de todas las novedades. De hecho, Ahotsenea es en una muy buena atalaya para obtener una visión global de la creación anual. Todo ello ha convertido a la Feria de Durango en una fiesta de la cultura vasca.

La canción es uno de los sectores más dinámicos de la cultura vasca. Constantemente se están creando nuevos grupos, grabando discos y colgando en plataformas digitales, pero también organizando conciertos en salas, casas de cultura, gaztetxes o bares... Según los datos recogidos por el portal *Badok.eus* encargado del seguimiento exhaustivo de la música vasca, al año se editan cerca de 200 trabajos en euskera, tanto en soporte físico como digital. El CD es el formato preferido, pero el LP ha ido creciendo en los últimos años, junto con las publicaciones de corta duración (EPs, Singles de vinilo, etc.). Es decir, aunque nuestra industria discográfica ha padecido también las consecuencias de la crisis que ha sacudido y transformado la industria musical a nivel global, se siguen creando, grabando y editando un número nada desdeñable de canciones. Las nuevas formas de producir, difundir y consumir música han provocado, también en el País Vasco, el declive del modelo tradicional de negocio y, a medida que las discográficas convencionales publican cada vez menos discos, aumenta el número de trabajos autoproducidos. La autoproducción es, de hecho, el fenómeno más destacado en el ámbito de la música popular vasca del siglo XXI.

La variedad es una de las principales características de la canción vasca. Casi cualquier estilo puede escucharse en euskera y, desde el punto de vista de la calidad técnica, cada vez se publican mejores discos. Junto a músicos y cantantes veteranos que han aprendido el oficio gracias a la experiencia, han surgido generaciones formadas en escuelas de música y conservatorios. Por otro lado, contamos con una amplia red de estudios de grabación. Algunos de ellos son ya históricos y están dotados de herramientas punteras (Elkar, Garate, Katarain, Lorentzo Records...); otros son más pequeños y destacan por sacar un gran provecho a los recursos que aportan las nuevas tecnologías. En este ámbito, al conjunto de técnicos de sonido pioneros con una larga trayectoria profesional (Jean Phocas, Kaki Arkarazo, Angel Katarain, Aitor

**1.** Feria de Durango.

Herriko areto, kultur etxe, gaztetxe edo tabernetan... Euskal kantagintzaren jarraipen zehatza egiteaz arduratzen den *Badok.eus* atariak bildutako datuen arabera, euskaraz 200 lan inguru argitaratzen dira urtean, euskarri fisikoan zein digitalean. CDa da formaturik hautatuena, baina LPak gorantz egin du azken urteetan, eta baita iraupen laburreko argitalpenek ere (EPak, binilozko singleak...). Alegia, merkatu globalean musikaren industria astindu eta eraldatu duen krisiaren ondorioak gure diskogintzak ere pairatu dituen arren, kantuak sortzen, grabatzen eta editatzen dira kopuru nabarmenean oraindik ere. Musika ekoizteko, zabaltzeko eta kontsumitzeko moduen aldaketak negozio-eredu tradizionalaren gainbehera ekarri du Euskal Herrira ere, eta diskoetxe konbentzionalek lehen baino gutxiago argitaratzen duten heinean, autoekoizpenak gero eta indar handiagoa hartu du. Hori da, hain zuzen ere, herri-musikaren alorrean gertatu den fenomenorik aipagarriena XXI. mende honetan.

Askotarikoa izatea da euskal kantagintzaren ezaugarri nagusietako bat, ia edozein estilo euskaraz entzuteko aukera baitago, eta kalitate teknikoaren aldetik gero eta disko hobeak argitaratzen dira. Esperientziaren bidez ofizioa ikasi duten musikari eta kantari beteranoen ondoan, musika eskola eta kontserbatorioetan trebaturiko belaunaldiak plazaratu dira. Bestetik, grabazio-estudio sare zabala dugu, puntako tresneriaz horniturik estudio historikoez (Elkar, Garate, Katarain, Lorentzo Records...) zein teknologia berriek ematen dituzten baliabideei etekin handia ateratzen dieten estudio txikiagoez osatua; arlo honetan ere ibilbide luzeko soinu-teknikari aitzindarien multzoari (Jean Phocas, Kaki Arkarazo, Angel Katarain, Aitor Ariño, Cesar Ibarretxe...), izen berrien talde zabal bat gehitu zaio (Jose Lastra, Haritz Harreguy, Karlos Osinaga, Eñaut Gaztañaga, Victor Sanchez, Martxel Mariskal, Paxkal Etxepare, Axular Arizmendi, Iñigo Irazoki...). Garai batean ohitura zen Euskal Herritik kanpora joatea grabatzera, baina gaur egun alderantziz gertatzen da: kanpoko taldeak eta abeslariak dira maiz gurera etortzen direnak.

Egoera horretara iristeko bidea luzea izan da. «Izan direlako, gara», dio esaera zaharrak. Sei hamarkada igaro dira euskal kantagintza modernoak lehen urratsak egin zituenetik. Geroztik katea ez da eten, belaunaldi bakoitzak emandako fruituak hurrengoek jaso, barneratu, garaian garaiko molde eta eraginetara egokitu eta itzuli egin dizkiote gizarteari, eta mugak gainditu dituzte kasu askotan, hala hizkuntzazkoak nola geografikoak.

Gure folk, pop eta rock musikak ia denetarako balio izan du: lirikarako zein aldarrikapen sozial eta politikoetarako, olgetarako zein engaiamendurako, tradizio zaharren berreskurapenerako zein berrien sorrerarako. Euskal nortasuna osatzen, gaurkotzen eta munduko egiten betekizun garrantzitsua jokatu du kantagintzak, beste hainbat kulturatan bezala. Tresna indartsuak baitira hitza (hizkuntza) eta musika.

Euskal Herriak kantari eta musikari ugari eta onak eman ditu, eta emango ditu etorkizunean ere. Gure kantagintzak izan duen bilakaera eta berau eragin duten sortzaile esanguratsuenetako batzuen ibilbidea azaltzea da liburuxka honen asmoa.



Ariño, César Ibarretxe...), se ha sumado un amplio grupo de nuevos nombres. Con todo, si bien en el pasado la costumbre era ir a grabar fuera del País Vasco, hoy en día ocurre lo contrario: son grupos y cantantes de fuera los que a menudo vienen a grabar a nuestro país.

El camino ha sido largo. Como dice el refrán «somos porque fueron». Han pasado seis décadas desde que la canción vasca moderna diera sus primeros pasos y la rueda no ha dejado de girar. Los frutos de cada generación han sido recogidos, interiorizados, adaptados a las formas e influencias de cada época y devueltos a la sociedad, superando en muchos casos los límites lingüísticos y geográficos.

La canción folk, pop y rock vasca ha servido para casi todo: para la lírica, para las reivindicaciones sociales y políticas, para el entretenimiento, para el compromiso, para la recuperación de viejas tradiciones y para la creación de nuevas. Al igual que en otras culturas, la canción vasca ha jugado un papel importante en la construcción, actualización y creación de la identidad vasca, no en vano la palabra (la lengua) y la música son instrumentos poderosos.

El País Vasco ha dado muchos y buenos cantantes y músicos, y los seguirá dando en el futuro. El objetivo de este libro es explicar la evolución de nuestra producción musical, así como la trayectoria de algunos de los y las creadoras más significativos que la han encarnado.

# Ibilbide historikoa



**2.** Mixel Labeguerie.

## HASTAPENAK

Mixel Labegueriek (1921-1982) magnetofono batean grabaturiko kantuak argitaratu ziren unea jotzen da euskal kantagintza modernoaren abiapuntutzat.

1961. urtean izan zen, Baionan. Aurretik edo garai berean egin zituzten kantagintzari aire berriak ekartzeko beste saiakera batzuk, Bilboko Soroak taldearena esaterako, ahantzi gabe Nemesio Etxaniz apaizak hainbat doinu moldatzeko eta euskaratzeko egindako lana, baina gerora izandako eraginarengatik Labeguerieri aitortzen zaio lehen kantari modernoa izatea.

Lanbidez medikua zen Labeguerie, baina gazterik euskararen eta euskal kulturaren aldeko hainbat ekimenetan eta erakundetan parte hartu zuen, eta engaiamendu horren barruko beste alderdi bat kantagintza zen. Geroago politikagintzari eskaini zion denbora gehien, Kanbo herriko alkateaz gain, Parisen diputatua izateraino. Labeguerieren berritasunetako bat, garai hartan askori eskandalagarria iruditu zitzaiena, gitarra espainola edo klasikoaren erabilera izan zen –ordura arte, *a cappella* abesten zen, abesbatzetan eta zortzikoteetan–; beste aldaketa nagusia hitzei zegokien, euskal nortasunaren ukazioaren aurkako protesta-kanta ekarri zuelako nolabait. Hirugarrenik, Labegueriek berak sortuak ziren kantu guztiak, hitz eta doinu. Zortzi abesti baino ez zituen grabatu, Baionako Goiztiri zigiluak bi disko txikitan argitaratu zituenak, baina kantu haiek (*Astoa balaan, Gazteri berria, Aurtxo aurtxoa, Primaderako liliak, Gazte eskualdunaren kantua*...)





# Trayectoria histórica

**2.** Mixel Labeguerie.

## INICIOS

La publicación de las canciones grabadas en un magnetofón por Mixel Labeguerie (1921-1982) supuso el inicio de la canción moderna vasca.

Fue en 1961, en Bayona (Lapurdi). Tanto antes como en aquella misma época hubo otros intentos para traer nuevos aires a la canción vasca. Vale la pena citar al grupo Soroak de Bilbao y el trabajo del sacerdote Nemesio Etxaniz para adaptar y traducir diferentes melodías. Sin embargo, por su influencia posterior, Labeguerie es considerado el primer cantante vasco moderno.

Labeguerie era médico de profesión. Participó desde muy joven en diversas iniciativas e instituciones a favor del euskera y la cultura vasca; otro aspecto dentro de ese compromiso fue la canción. Posteriormente, dedicó más tiempo a la política y, además de ser alcalde de la localidad de Kanbo (Lapurdi), logró ser diputado en París. Una de las novedades que aportó Labeguerie fue el uso de la guitarra española o clásica, que a muchos y muchas resultó escandaloso porque hasta entonces lo habitual era cantar a cappella, en coros y ochotes. El otro gran cambio fueron sus letras, con él llegó la canción de protesta contra la negación de la identidad vasca. En tercer lugar, todas sus canciones fueron creadas por el propio Labeguerie, tanto las letras como las melodías. Aunque solo grabó ocho canciones, publicadas en dos pequeños discos por la discográfica Goiztiri de Bayona, aquellas canciones (*Astoa balaan*, *Gazteri berria*, *Aurtxo aurtxoa*, *Primaderako liliak*, *Gazte Eskualdunaren kantua*...) se extendieron por la geografía vasca y llegaron también a los territorios del sur que estaban bajo la dictadura franquista; aquellas canciones se convirtieron en verdaderos himnos para los y las jóvenes abertzales. Pocos años después, *Ez dok Amairu* reconocería la importancia de Labeguerie. En palabras de Xabier Lete: «Los discos de Labeguerie, sobre todo los primeros, tuvieron una gran importancia para el cambio de estilo en la canción popular vasca: eran canciones acompañadas de guitarra simple, cantadas con voz particular, modesta y corriente, alejadas de toda sofisticación y comunicación comercial» (Revista *Jakin*, 4/1977). El camino emprendido por Labeguerie fue ampliado y reforzado por Ez Dok Amairu que más que un grupo fue un colectivo que, además de cantantes y músicos, también acogió a escritores, artistas y bailarines. Por ello, en sus espectáculos (*Ikilimikiliklik, Baga biga higa*...) se unían diversas disciplinas artísticas como la canción, la danza, la txalaparta (instrumento de percusión), la poesía...

El movimiento fue creado en 1965 con el objetivo de modernizar la canción vasca. Su espejo fue *Els Setze Jutges*, colectivo que sentó las bases de la *nova cançó* catalana. El objetivo principal de Ez Dok Amairu era actualizar el cancionero popular tradicional y crear nuevas canciones bebiendo de influencias externas como la *chanson* francés, el canto

Euskal Herri osora zabaldu ziren, baita Francoren Espainiako diktadurapean zeuden hegoaldeko herrialdeetara sasian iritsi ere, eta gazte abertzaleen hurrengo urteetako ereserki bilakatu ziren. Urte gutxi batzuk geroago, Ez Dok Amairu taldeak Labeguerieren garrantzia aitortuko zuen. Xabier Leteren hitzetan, «Labeguerieren diskoek, batez ere lehenak, izugarrizko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoiaren estilo aldaketan: gitarra soilez lagunduriko kantak baitziren, ahots partikular bezain apal eta arruntaz kantaturikoak, molde komertzialei zegozkien amaneramendu eta sofistikazio guztietatik urruti» (*Jakin aldizkaria*, 4/1977). Labeguerieк hasitako bidea Ez Dok Amairuk zabaldu eta sendotu egin zuen. Talde bat baino gehiago kolektibo bat izan zen, kantariez eta musikariez gain, idazleak, artistak eta dantzariak ere hartu baitzituen bere baitan. Hori dela eta, ez zituen ohiko kontzertuak eskaintzen, baizik eta hainbat arte diziplina batzen ziren Ez Dok Amairuren ikuskizunetan (*Ikilimikiliklik, Baga biga higa*...): kantua, dantza, txalaparta (perkusio-tresna), poesia...

Hala ere, euskal kantagintzari modernotasuna ekartzeko asmoarekin sortu zuten 1965ean, Kataluniako *nova cançо*-ren oinarriak ezarri zituen Els Setze Jutges taldearen ispiluan begiratuta. Herri-kantutegi tradizionala gaurkotzea eta kanpoko eraginetatik –Frantziako *chanson*-etik, AEBetako protesta kantatik, Hego Amerikako kantagintzatik...– edanez kantu berriak sortzea ziren bi helburu nagusiak. Gerora ibilbide luze eta emankorra egin duten sortzaileak bildu ziren Ez Dok Amairun, hala kantariak (Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Julen Lekuona, Oskarbi taldea...) nola idazleak (Joxean Artze, Jose Angel Irigaray...). Jorge Oteiza eskultoreak jarri zion izena taldeari Resurrección María Azkuek jasotako herri-ipuin batean oinarrituta: 13 zenbakiaren ukoak euskal kulturaren aurkako malefizioa deuseztatuko zuen. Eta lortu zuen, nolabait. Iraun zuen bitartean, 1972ra arte, taldeak inarrostea eragin zuen gizartean, eta lehen aldiz, zentsurak oztopoak jarri arren, modernitatearen adierazpen kultural batek interesa piztea eta jendetza erakartzea lortu zuen. Taldearen sorkuntza kolektiboak ekarritako lanik gorena *Baga biga higa* ikuskizuna izan zen, 1970ean.

Ez Dok Amairuren agerpena ez zen gertakizun isolatu bat izan, 1960ko hamarkadan euskal kulturak bizi zuen pizkundearen ondorio baizik. Garai bertsuan sortu ziren, esaterako, Jarrai antzerki taldea eta Argia dantza taldea; euskal literaturari modernitatearen ateak zabaldu zizkioten lehen eleberriak plazaratu ziren –*Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Elsa Scheelen*, biak Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* idazlearenak, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*...– eta arte plastikoetan zeresan handia emango zuen belaunaldi berri bat agertu zen: Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Remigio Mendiburu eta beste hainbat... Diktadurak ezarritako giro gris, hits eta itogarrian kultura-adierazpide berrien beharra zuen euskal gizartearen egarria ase zuten.

## KANTAUTOREAK, GIZARTEAREN AHOTS

Ez dok Amairuko abeslariek, besteak beste, kanturako zaletasuna piztu zuten gizartean. Nonahi agertu ziren gitarra soil baten laguntzaz agertokietara igotzeko prest zeuden gazteak. Batzuek, Nemesio Etxaniz apaizak bultzaturik, euskal kantu zaharrak modu arinean emateko edo nazioarteko kantu arrakastatsuak euskaratzeko bidea hartu zuten. Asmo horrekin sortu ziren Urretxindorrak, Ameslariak, Argoitia neba-arrebak eta beste zenbait talde eta bakarlari: Xabier Madina, Euskaros, Naikari, Donato, Daikiris, Jose Antonio

**3.** Ez Dok Amairu.





protesta estadounidense, el cancionero sudamericano... En Ez Dok Amairu se reunieron creadores con una larga y fructífera trayectoria; tanto músicos (Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Julen Lekuona, el grupo Oskarbi...) como escritores (Joxean Artze, Jose Angel Irigaray...). El escultor Jorge Oteiza denominó al grupo Ez Dok Amairu (No hay trece), basándose en un cuento popular recogido por Resurrección María Azkue según el cual el rechazo del número trece anularía el maleficio contra la cultura vasca. Y, de alguna manera, Ez Dok Amairu lo consiguió. Durante su vigencia, hasta 1972, el grupo provocó una agitación social tal que, a pesar de los obstáculos de la censura, logró que aquella genuina manifestación cultural de la modernidad despertara interés y atrajera a la multitud. Su obra más relevante fue el espectáculo *Baga biga higa*, en 1970.

La aparición de Ez Dok Amairu no fue un hecho aislado, sino fruto del renacimiento que vivió la cultura vasca en la década de 1960. En esta misma época surgieron, por ejemplo, el grupo de teatro Jarrai y el grupo de danza vasca Argia. Asimismo, se publicaron las primeras novelas que abrieron las puertas de la modernidad en la literatura vasca como son: *Leturiaren egunkari ezkutua* y *Elsa Scheelen*, ambas del escritor José Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, *Egunero hasten delako* de Ramón Saizarbitoria...–. A su vez, apareció una nueva generación en el campo de las artes plásticas: Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Néstor Basterretxea, José Luis Zumeta, Remigio Mendiburu y otros... Todas estas nuevas expresiones culturales alumbraron una sociedad vasca que todavía vivía en aquel ambiente gris, triste y asfixiante que había impuesto la dictadura franquista.

**3.** Ez Dok Amairu.

## LOS CANTAUTORES, LA VOZ DE LA SOCIEDAD

Los cantantes de Ez Dok Amairu, entre otros, despertaron en la sociedad la afición a la canción. Por todas partes aparecieron jóvenes dispuestos a subir a los escenarios con una simple guitarra. Algunos, impulsados por el sacerdote Nemesio Etxaniz, optaron por ofrecer canciones tradicionales vascas de forma amena o por traducir al euskera canciones de éxito


3

Villar, Luis Amilibia, Yon Libarona… Euskarazko pop edo ye-ye musikaren aitzindariak izan ziren, urte luzez ahantzita egon badira ere.

Izan ere, 1970eko hamarkadaren hasieran beste joera bat nagusitu zen. Ordurako 40 urteko frankismo garaia azkenetan zegoen, eta diktaduraren amaierarekin aldaketa politikoak (demokrazia, preso politikoen amnistia, euskararen legeztatzea…) berehala etorriko ziren esperantzak erroak egin zituen jendartean. Testuinguru horretan, Pantxoa eta Peio, Gorka Knorr, Imanol Larzabal, Urko, Manex Pagola, Maite Idirin, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Etxamendi eta Larralde, Guk taldea, Iokin eta Iosu, Hibai Rekondo eta beste hainbat kantari irrika eta amets guztien bozeramaile bihurtu ziren, eta herritarrek atzetik jarraitu zieten herrietako frontoiak eta plazak betez asteburuero.

Ordura arteko jaialdietan ezagutu gabeko osagai berri bat agertu zen: entzuleen parte-hartzea. Ez dira hartzaile hutsak. Emozioa, ilusioa eta aldaketetan parte izateko gogoa adierazi beharra sentitzen dute, eta jaialdietan aurkituko dute kantarien eskutik barruko zirrara lau haizeetara zabaltzeko abagunea. Donostiako Belodromoan 1976ko martxoaren 27an egindako *24 ordu euskaraz* jaialdia mugarri izan zen kantaldien aro honetan.

Ez da harritzekoa, beraz, garai horietako hainbat kantuk arrasto ezabaezina utzi izana herriaren oroimen kolektiboaren soinu-bandan: *Batasuna, Azken dantza, Urtxintxa* (Pantxoa eta Peio), *Araba, Azken agurraren negarra* (Gorka Knorr), *Guk euskaraz, Irabazi dugu* (Urko), *Bagare* (Gontzal Mendibil eta Xeberri) eta beste hainbat eta hainbat. Abesti haiek kantaldietatik denon etxeetara iritsi zitezen bi diskoetxe garrantzitsu sortu ziren herri-ekimenari esker: Elkar eta IZ. Biek diskogintzaren lehen zimenduak jarri zituzten, Ez Dok Amairuren inguruan sortutako Herri Gogoarekin batera. Ezin da aipatu gabe utzi, hala ere, lehen disko laburrak, askotan frankismoak ezarritako debekuei itzuri eginez, argitaratu zituen Cinsa zigilua.

Bakarlari guztiek ez zuten kantua mezu politikorako erabili. Antton Valverdek, esaterako, bertso zaharrak eta olerkiak musikatzeko hautua




**4.** Txomin Artola.





**4.** Txomin Artola.

internacional. Con esa intención surgieron los grupos Urretxindorrak, Ameslariak, los hermanos Argoitia y otros grupos y solistas como: Xabier Madina, Euskaros, Naikari, Donato, Daikiris, José Antonio Villar, Luis Amilibia, Yon Libarona… Todos fueron pioneros de la música pop o ye-ye en euskera, aunque han estado olvidados durante años.

A principios de los años setenta se impuso otra tendencia. Era el final del periodo franquista de 40 años y, con el fin de la dictadura, los cambios políticos (democracia, amnistía de los presos políticos, legalización del euskera…) arraigaron la esperanza en la sociedad. En ese contexto, Pantxoa eta Peio, Gorka Knörr, Imanol Larzabal, Urko, Manex Pagola, Maite Idirin, Gontzal Mendibil y Xeberri, Etxamendi y Larralde, el grupo Guk, Iokin eta Iosu, Hibai Rekondo y otros muchos cantantes se convirtieron en portavoces de todos aquellos anhelos y sueños de la sociedad vasca que los siguió cada fin de semana a los frontones y a las plazas de los pueblos donde actuaban.

Así apareció un nuevo componente, desconocido hasta entonces en los festivales: la participación del público que dejó de ser un mero oyente. El público sintió la necesidad de expresar su emoción, su ilusión y las ganas de participar en los cambios sociales, y en los festivales encontraron la oportunidad de desatar su emoción de la mano de los cantantes. El festival *24 ordu euskaraz* (24 horas en euskera) celebrado el 27 de marzo de 1976 en el Velódromo de Donostia/San Sebastián marcó un hito.

No es de extrañar que algunas canciones de aquella època hayan dejado una huella indeleble en la banda sonora de la memoria colectiva del pueblo vasco: *Batasuna*, *Azken dantza*, *Urtxintxa* (Pantxoa eta Peio), *Araba*, *Azken agurren negarra* (Gorka Knörr), *Guk euskaraz*, *Irabazi dugu* (Urko) y *Bagare* (Gontzal Mendibil eta Xeberri) entre otras. Gracias a la iniciativa popular se crearon dos importantes discográficas: Elkar e IZ. Ambas pusieron los primeros cimientos de la discografía vasca, junto con el sello Herri Gogoa creado en torno a Ez Dok Amairu. Asimismo, cabe destacar la labor de la discográfica Cinsa que publicó sus primeros discos cortos, muchas veces esquivando las prohibiciones impuestas por el franquismo.

No obstante, no todos los solistas utilizaron la canción para el mensaje político. Por ejemplo, Antton Valverde optó por musicar viejos versos y poemas, tanto de poetas prebélicos (Lizardi, Lauaxeta…) como de poetas contemporáneos (Lete, Artze…); Imanol Larzabal tomó un camino similar en los años ochenta; Txomin Artola compaginó su afición al folk inglés y americano con la canción tradicional vasca, primero en el grupo Haizea y luego en solitario, poniendo música a textos de los poetas Walt Whitman (*Belar hostoak*, 1978) y Gotzon Aleman (*Ttakun ttakun*, 1979); Estitxu tradujo al euskera canciones de folk estadounidense… Por otra parte, tras la disolución del grupo Ez Dok Amairu, la mayoría de sus miembros continuaron sus carreras en solitario, especialmente Laboa, Lertxundi y Lete.

## LOS PRIMEROS GRUPOS DE ROCK Y FOLK

La fiebre por la música no duró mucho y la euforia comenzó a decaer a finales de los años setenta. En la misma época, debido a la apertura que supuso el fin de la dictadura, cada vez llegaba más música internacional a las escasas tiendas de discos. También en las radios se podían escuchar las últimas novedades con mayor frecuencia, especialmente canciones de rock y folk,

egin zuen, 1936ko gerra aurreko poetenak (Lizardi, Lauaxeta…) zein poeta garaikideenak (Lete, Artze…); antzeko bidea hartu zuen Imanol Larzabalek 1980ko hamarkadan; Txomin Artolak folk ingeles eta amerikarrerako zaletasuna euskal kantu tradizionalarekin uztartu zuen, Haizea taldearekin lehenengo eta bakarka ondoren, eta Walt Whitman (Belar hostoak, 1978) eta Gotzon Aleman (*Ttakun ttakun*, 1979) poetak musikatu zituen; Iñaki Eizmendik kantautore urbanoaren estetika hartu zuen bi diskotan: *Gureak ez diren kale ixilen bi milagarren samiña* (1977) eta *Zaldi erratu hatsa* (1980); Estitxuk AEBetako folk kantuak euskarara ekarri zituen… Bestalde, taldea desegin ondoren Ez Dok Amairuko kide gehienek bakarka jarraitu zuten, bereziki Laboak, Lertxundik eta Letek.

## LEHEN FOLK ETA ROCK TALDEAK

Kantaldien sukarrak ez zuen luze iraun eta euforia hura apaltzen hasi zen 1970eko hamarkadaren amaieran. Garai berean, diktaduraren amaierak ekarritako irekiduraren ondorioz, nazioarteko musika gehiago iristen hasi zen disko denda apurretara, irratietan ere maiztasun handiagoz entzun zitezkeen munduko azken nobedadeak, bereziki Erresuma Batuko zein AEBetako rock eta folk kantuak, eta doinu haiekin hazitako eta hezitako gazteek instrumentuak hartu zituzten. Batzuk lehenagotik ari ziren, Niko Etxart kantaria eta Errobi taldea, kasu. Euskal rockaren sorrera izen horiekin lotuta dago. Ez da kasualitatea biak Ipar Euskal Herrikoak izatea, Frantziaren administrazioko lurralde horretan eskuragarriago baitzuten nazioarteko musika.

Hala ere, Hego Euskal Herrian ere aldaketa interesgarria ari zen gertatzen. Kantautoreen ordez lehen taldeak ari ziren sortzen: Itoiz, Izukaitz, Haizea, Enbor, Lisker, Koska, Sakre… Kasuan-kasuan, rock sinfonikoaren (Genesis, Pink Floyd, Jethro Tull…) eta folk ingelesaren (Pentagle, Steeleye Span, Fairport Convention…) eragina hartzen zuten, eta doinu tradizionalekin nahasten zuten. Gehienek ibilbide laburra izan zuten baina lan berritzaileak utzi zituzten, bereziki folkaren alorrean. Halakoak dira Haizearen bi diskoak (*Haizea*, 1977; *Hontz gaua*, 1989) –talde horretan eman zen ezagutzera Amaia Zubiria, euskal ahotsik ederrenetakoa duen abeslaria–, Izukaitzenak (*Izukaitz*, 1978; *Otsoa dantzan*, 1980), edota Ipar Euskal Herrian, Beñat Achiary abeslari eta perkusio-jotzailearen inguruan, eratu zen Urria taldearenak (*Argi tirrintan,* 1978; *Bruma altxatzean*, 1980). Lan hauek argia ikusi zutenerako nabarmentzen hasia zen gure folk talderik enblematiko eta iraunkorrena: Oskorri.




Taldeok XX. mende amaierarako euskal herri-musika berria sortzeko lehen urratsak egin zituzten. Bakarlari gutxi sortu zen frankismoaren ondorengo lehen urte haietan, baina horien artean esanguratsuena Ruper Ordorika da. Hamarkada amaitzearekin batera, bere lehen diskoa kaleratu zuen, *Hautsi da anphora* (1980), lan atipikoa bere garaian, baina denborarekin iraganaren eta etorkizunaren arteko zubi bihurtu zena.





tanto del Reino Unido como de Estados Unidos. Así, los jóvenes, criados y educados con esas melodías, comenzaron a utilizar otros instrumentos. Algunos habían empezado antes, como el cantante Niko Etxart y el grupo Errobi. Es más, el nacimiento del rock vasco está estrechamente relacionada con esos dos nombres. No es casualidad que ambos procedan del País Vasco del Norte, territorio en el que bajo la administración francesa tenían más acceso a la música internacional.

Sin embargo, también en el País Vasco del Sur se estaba produciendo un cambio interesante. Los primeros grupos de música estaban tomando el relevo de los cantautores: Itoiz, Izukaitz, Haizea, Enbor, Lisker, Koska, Sakre… Cada uno en su caso tomaba influencias del rock sinfónico (Génesis, Pink Floyd, Jethro Tull…) y del folk inglés (Pentagle, Steeleye Span, Fairport Convention…) y las mezclaban con melodías tradicionales vascas. La mayoría tuvo un corto recorrido, pero dejaron trabajos realmente innovadores, especialmente en el campo del folk. Muestra de ello son los dos discos del grupo Haizea (*Haizea*, 1977; *Hontz gaua*, 1989), donde se dio a conocer Amaia Zubiria, una de las voces más bellas del panorama vasco; Izukaitzenak (*Izukaitz*, 1978; *Otsoa dantzan*, 1980); o el grupo Urria (*Argi Tirrintan*, 1978; *Bruma altxatzean*, 1980), que se formó en el País Vasco del Norte en torno al cantante y percusionista Beñat Achiary. Para entonces empezaba a destacar el grupo Oskorri, nuestro grupo de folk más emblemático y duradero.

A finales del siglo XX todos estos grupos habían contribuido en la creación de una nueva música popular vasca. Pocos fueron los solistas que surgieron en aquellos primeros años después del franquismo, pero uno fue muy relevante: Ruper Ordorika. En 1980 publicó su primer disco (*Hautsi da anphora*), una obra atípica en su momento, pero que con el tiempo se convirtió en un puente entre el pasado y el futuro.

## LA DÉCADA DEL ROCK RADICAL

Durante los siguientes años la escena musical cambió tanto como lo hizo la sociedad. El aumento del paro, la propagación del consumo de drogas y la proliferación de luchas alternativas basadas en una actitud inconformista contra el sistema (ecologismo, antimilitarismo, ocupación de edificios vacíos, feminismo…), fueron un aliciente para que las ondas de la explosión del movimiento punk ocurrido años antes en Londres llegaran con fuerza también al País Vasco. Nacieron varios grupos que llevaron a la práctica el lema *do it yourself* (hazlo tú mismo), principalmente en capitales y pueblos industriales, y aunque los estilos no estaban unificados, ya que existían grupos punk, ska, reggae, hardcore, heavy y rock, fueron agrupados bajo una misma etiqueta: Rock Radikal Vasco (RRV). Fue el fenómeno cultural más vigoroso del País Vasco en la década de 1980.

El RRV introdujo dos cambios importantes. Por un lado, el castellano se convirtió en la lengua predominante, ya que la mayoría de los grupos surgieron en entornos castellano parlantes (La Polla Records en Agurain, Araba; Barricada, en Pamplona; Eskorbuto en Santurtzi, Bizkaia). Hubo pocas excepciones, pero entre ellas dos fueron muy significativas: Hertzainak y Zarama. Ambos grupos se formaron en zonas castellano parlantes de Vitoria-Gasteiz y de Santurtzi (Bizkaia) respectivamente, pero optaron por cantar en euskera, es más, algunos de sus miembros aprendieron el idioma. Con esta decisión ambos grupos se distinguieron tanto de los rasgos de lo que hasta entonces se había conocido como canción vasca, como del resto de grupos del RRV. Más tarde, Kortatu tomó una decisión similar, cambiando del castellano al euskera.

## ROCK ERRADIKALAREN HAMARKADA

Hain zuzen, hurrengo urteetan errotik aldatu zen eszena musikala, gizartea nola. Langabeziaren hazkundea, drogen kontsumoaren zabalkundea eta sistemaren aurkako jarrera inkonformistan oinarritutako borroka alternatiboen ugaltzea (ekologismoa, antimilitarismoa, eraikin hutsen okupazioa, feminismoa…), bazka izan ziren Londresen urte batzuk lehenago gertatutako punk mugimenduaren leherketaren uhinek indar ikaragarria har zezaten Euskal Herrian. *Do it yourself* (zuk zeuk egin) leloa praktikara eramaten zuten hainbat talde jaio ziren, gehienbat hiriburu eta herri industrialetan, eta estilo bateratasunik ez zegoen arren –punk, ska, reggae, hardcore, heavy edota rock taldeak zeuden haien artean–, etiketa baten abaroan batu zituzten: Rock Radikal Vasco (RRV). 1980ko hamarkadan Euskal Herrian sortutako kultur-fenomenorik indartsuena izan zen.

Bi aldaketa nagusi ekarri zituen RRVk. Batetik, gaztelania bilakatu zen hizkuntza nagusi, ingurune erdaldunetan sorturikoak baitziren talde gehienak (La Polla Records, Agurainen; Barricada, Iruñean; Eskorbuto, Santurtzin). Salbuespen gutxi batzuk egon ziren, baina horien artean bi oso esanguratsuak eta garrantzitsuak: Hertzainak eta Zarama. Bi taldeak gune erdaldunetan sortu ziren, Gasteizen eta Santurtzin (Bizkaia) hurrenez hurren, baina euskaraz abesteko hautua egin zuten, taldekideetako batzuek hizkuntza ikasi ondoren. Erabaki horrekin beren burua bereizi zuten bi taldeok, ordura arteko euskal kantagintzarekiko zein RRVko beste taldeekiko. Geroago, Kortatuk antzeko erabakia hartu zuen, gaztelaniatik euskarara aldatuz.

Bestetik, bere burua elikatzeko gai zen sare oso bat ehundu zen mugimendu haren inguruan: diskoetxeak (Soñua, Oihuka, Discos Suicidas…), irrati libreak, fanzineak, gazteek kontzertuak antolatzeko okupatutako etxe autogestionatuak… Aldi berean, gaur egungo azpiegituraren zutabeetako asko RRVren urteetan sendotu ziren: diskoetxeek grabazio-estudio berriak eraiki zituzten, eta soinu-teknikariek hobeto trebatzeko aukera izan zuten; lehen *management* agentziak sortu ziren; komunikabideen hauspoa jaso zuten taldeek… Horrek berehalako ondorioak ekarri zituen, katean: disko-ekoizpena izugarri hazi zen 1984tik aurrera, salmentek ere gora egin zuten ordura arte euskal musikak sekula lortu gabeko kopuruetaraino, eta horrekin batera kontzertuak nonahi antolatzen hasi ziren… Euskal Herriko rockaren historiako disko entzutetsuenetako batzuk argitaratu ziren urte zorabiagarri haietan: *Hertzainak* (Hertzainak, 1984), *Salve* (La Polla Records, 1984), *Indarrez* (Zarama, 1984), *Kortatu* (Kortatu, 1985) *Barrio conflictivo* (Barricada, 1985), *Anti-todo* (Eskorbuto, 1985), *No te muevas* (RIP, 1987), *Inadaptados* (Cicatriz, 1986), *Lur azpian bukatuko duzue* (Baldin Bada, 1986), *Ikusi eta ikasi* (Delirium Tremens, 1989)…

RRVren ildo nagusitik kanpo, Itoiz, Jotakie edota M-ak azpimarratzekoak dira euskaraz aritzen zirenen artean. Azken talde hori Xabier Montoia kantari eta idazleak eta Kaki Arkarazo musikari eta soinu-teknikariak sortu zuten, Angel Katarainekin. Musika beltza eta esperimentala jorratu zuen, oso garaikidea eta sofistikatua, eta horregatik gutxiengo batengana iritsi zen. Bost disko argitaratu zituen –horien artean *Barkatu, ama* (IZ, 1989) eta *Gor* (IZ, 1990) nabarmendu daitezke– eta gaur egun asko dira M-aken ekarpena aldarrikatzen dutenak.

1980ko hamarkadan ere ernatu ziren folk loreak. Ganbara taldeak Izukaitzen eta Haizearen bide berritzailean sakondu bazuen ere,





Además, en torno al RVV se tejió una red capaz de autosustentar el movimiento: discográficas (Soñua, Oihuka, Discos Suicidas…), radios libres, fanzines, casas autogestionadas ocupadas por jóvenes para organizar conciertos… Al mismo tiempo, muchos de los pilares de la infraestructura actual se consolidaron en los años del RRV: las discográficas construyeron nuevos estudios de grabación y los técnicos de sonido tuvieron la oportunidad de formarse mejor, surgieron las primeras agencias de *management* y los grupos recibieron el respaldo de los medios de comunicación. Todo ello tuvo consecuencias inmediatas: la producción de discos creció enormemente a partir de 1984, las ventas también aumentaron hasta cifras nunca alcanzadas por la música vasca y se empezaron a organizar conciertos por todas partes… Algunos de los discos más célebres de la historia del rock del País Vasco se publicaron en aquellos años trepidantes: *Hertzainak* (Hertzainak, 1984), *Salve* (La Polla Records, 1984), *Indarrez* (Zarama, 1984), *Kortatu* (Kortatu, 1985) *Barrio conflictivo* (Barricada, 1985), *Anti-todo* (Eskorbuto, 1985), *No te muevas* (RIP, 1987), *Inadaptados* (Cicatriz, 1986), *Lur azpian bukatuko duzue* (Baldin Bada, 1986), *Ikusi eta ikasi* (Delirium Tremens, 1989)…




Al margen del RRV, destacan entre los grupos que cantaban en euskera Itoiz, Jotakie y M-ak. Este último lo crearon, con Angel Katarain, el cantante y escritor Xabier Montoia y el músico y técnico de sonido Kaki Arkarazo. El grupo abordó la música negra y experimental, muy contemporánea y sofisticada, y tal vez por eso llegó a una minoría. Publicó cinco discos, entre los que destacan *Barkatu, ama* (IZ, 1989) y *Gor* (IZ, 1990). Actualmente, sin embargo, son muchos los que reivindican la aportación de M-ak.

El folk también tuvo su espacio en los años ochenta. Aunque el grupo Ganbara profundizó en el camino innovador de Izukaitz y Haizea, la principal tendencia de esta década (Azala, Txanbela, Kazkabarra…) fue la recuperación de la música popular vasca. La labor del músico e investigador Juan Mari Beltrán en este campo ha sido y es inconmesurable.

## «¡SOY VASCO Y ESTOY ORGULLOSO!»

No es fácil determinar cuándo terminó la era del RRV, pero con el cambio de década desaparecieron algunos de los grupos icónicos de aquel movimiento (Kortatu se despidió en 1988 con un disco histórico en directo, Delirium Tremens se separó en 1991 y Hertzainak permaneció hasta 1992). Otros grupos perdieron su fuerza (Zarama o Baldi Bada, por citar a los que cantaban en euskera). Mientras tanto, nuevas propuestas surgieron con fuerza entre las que destacó una en concreto: Negu Gorriak.

Los hermanos Iñigo y Fermin Muguruza (Kortatu) y Kaki Arkarazo (M-ak) crearon el primer grupo que trajo el movimiento hip hop (canción, danza, estética…) al euskera. Pusieron en marcha la discográfica Esan Ozenki, basada en la autogestión e independencia artística de los grupos. La aparición de Negu Gorriak y Esan Ozenki representan, mejor que nadie, el nuevo tiempo y la obsolescencia del RRV. El impacto de Negu Gorriak fue enorme, no solo desde el punto de vista musical, sino también porque aportó nuevas ideas en la forma de trabajar de los grupos. Además, Esan Ozenki volvió a poner el euskera en el centro de la creación. Por un lado, difundió el lema «euskalduna naiz eta harro




hamarkada honetako taldeen joera nagusia (Azala, Txanbela, Kazkabarra...) euskal herri-musikaren berreskuratzea izan zen. Lan horrek gidari nagusi bat izan zuen, eta du: Juan Mari Beltran musikari eta ikertzailea.

## «EUSKALDUNA NAIZ ETA HARRO NAGO!»

Ez da erraza zehaztea noiz amaitu zen RRVren garaia, baina hamarkada aldaketarekin batera mugimendu haren talde ikono batzuk desagertu ziren (Kortatuk 1988an esan zuen agur, zuzeneko disko historiko batekin; Delirium Tremens 1991n banandu zen; eta Hertzainakek 1992ra arte iraun zuen), eta beste batzuek galdu egin zuten garai bateko indarra (Zarama edota Baldin Bada, euskaldunak aipatzearren). Aldi berean, proposamen berriak azaleratu ziren oso indartsu, eta bat nabarmendu zen bereziki: Negu Gorriak.

Iñigo eta Fermin Muguruza anaiek (Kortatu) eta Kaki Arkarazok (M-ak) sortu zuten hip hop kultura (kantua, dantza, estetika...) euskarara ekarri zuen lehen taldea, eta harekin batera Esan Ozenki diskoetxea jarri zuten abian, taldeen autogestioan eta independentzia artistikoan oinarriturik. Negu Gorriak eta Esan Ozenkiren agerpenak irudikatzen du, ezerk baino hobeto, garai berria eta RRVren zaharkitzea. Negu Gorriaken inpaktua itzela izan zen, ez musikaren aldetik bakarrik, baita taldeen lan egiteko moduan ideia berriak ekarri zituelako ere. Horrez gain, Esan Ozenkik euskara jarri zuen berriz ere sorkuntzaren erdigunean –«euskalduna naiz eta harro nago!» leloa zabaldu zuen, James Brownen *I'm black and I'm proud!* hura gogoan– eta estilo garaikideen eraginak barneratzen zituzten talde berrien aldeko apustua egin zuen.

Lehen aldiz aniztasuna heldu zen eszenara. Hona hemen 1990eko hamarkadako talde eta estiloen lagin bat: Ama Say (noise pop), Bap!! (hardcore) Beti Mugan (rock amerikarra), Lin Ton Taun (triki-rap), Dut (post-hardcore), Betagarri (ska), Anestesia (thrash metal), Balerdi Balerdi (power pop), Deabruak Teilatuetan (rock-hardcore), Bizkar Hezurra (rap-metal), Exkixu (rock-folk), Hemendik At! (eurodance), Lau Behi (blues), King Mafrundi (afro-reggae), Sorotan Bele (folk-pop), Julio Kageta (punk-rock), Kashbad (rock), Txakun (folk-rock), Joxe Ripiau (ska-raggamuffin), Selektah Kolektiboa (rap), Zazpi Eskale (bertso-folk)...

Aniztasun horren barruan, bi joera berrik indar handia hartu zuten. Batetik, heavy eta metal musikak. Su Ta Gar aitzindaria izan zen heavy klasikoa euskaraz jorratzen, eta eskola sortu zuen: Latzen, Urtz, Idi Bihotz, Ehun Kilo, Asgarth... haren itzalean sortu ziren. Metal musikaren beste adar batzuetatik (thrash metal, black metal, nu metal, death metal...) joko zuten beste hainbat taldek PI.L.T., Eraso!, OST, Berri Txarrak, Ekon, Soziedad Alkoholika, Jousilouli, Numen... Bolada luze batean gazteen erreferenteetakoa izan den joera horrek oihartzuna galdu du urteekin, baina ez ditu ordezkariak faltan: Elbereth, Mendeku Itxua, Aiumeen Basoa, Sentimen Beltza, Auritz, Numen, Bullets of Misery, Conflict Noise, Floxbin, Hilotz, Muted, Huts, Hortzdun...

Beste iraultza nagusia trikitiarena izan zen, akordeoi diatonikoarekin egindako musikarena, alegia. Kasu honetan, Joseba Tapia eta Kepa Junkera soinu jotzaileak izan ziren bide urratzaileak, ildo tradizionalari uko egin gabe, harmonia eta erritmo berriak lantzen hasi zirenak. *Infernuko hauspoa* (Elkar,





nago!» (soy vasco y estoy orgulloso), recordando el *I'm black and I'm proud!* De James Brown y, a su vez, apostó por nuevos grupos que manejaran influencias de estilos contemporáneos.

Por primera vez llegó la diversidad a la escena vasca. He aquí una muestra de grupos y estilos de los años noventa: Ama Say (noise pop), Bap!! (hardcore), Beti Mugan (rock americano), Lin Ton Taun (triki-rap), Dut (post-hardcore), Betagarri (ska), Anestesia (thrash metal), Balerdi Balerdi (power pop), Deabruak Teilatuetan (rock-hardcore), Bizkar Hezurra (rap-metal), Exkixu (rock-folk), Hemendik At!(eurodance), Lau Behi (blues), King Mafrundi (afro-reggae), Sorotan Bele (folk-pop), Julio Kageta (punk-rock), Kashbad (rock), Txakun (folk-rock), Joxe Ripiau (ska-raggamuffin), Selektah Kolektiboa (rap), Zazpi Eskale (bertso-folk)...

La otra gran revolución fue la de la *trikiti* o música con acordeón diatónico. En este caso, fueron músicos como Joseba Tapia y Kepa Junkera los que abrieron el camino y, sin renunciar a la línea tradicional, comenzaron a trabajar nuevas armonías y ritmos. En los discos *Infernuko hauspoa* (Elkar, 1987) y *Jo ta hautsi* (Elkar, 1987) se podía apreciar un cambio, pero los siguientes trabajos, *Triki up* (Elkar, 1990) de *Junkera y Juergasmoan* (Elkar, 1990) de Tapia eta Leturia, dieron la medida del cambio. En el estilo tradicional de la *trikiti* se toca en pareja (acordeón diatónico y pandero), pero las nuevas generaciones adoptaron el formato de grupo de rock (añadiendo batería, bajo y guitarra). Así, además de las melodías tradicionales vascas para la danza hicieron suyos otro estilos de música (pasodoble, cumbia, tex-mex, ballenato, rock, pop, rap ...). La nueva fórmula tuvo un gran éxito y destacaron grupos como: Tapia eta Leturia Band, Gozategi, Imuntzo eta Beloki, Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar, M-n ezten y Etzakit. A pesar del declive posterior, han seguido surgiendo nuevos representantes de ese sonido y el grupo Huntza es buen ejemplo de ello –su canción *Aldapan gora* ha tenido millones de reproducciones en Youtube–. Destacan también Iñorkiñak y Garilak 26 entre otros. Además, a partir de la *trikiti* han nacido otros proyectos. Por ejemplo, el trío Gose combinó el acordeón diatónico con la música electrónico y Esne Beltza ha apostado por el mestizaje de sonidos con una mezcla de triki, pop, reggae, ska y hip hop en un cóctel bailable y alegre.

En la década de 1990, con el 25 aniversario de Oskorri, la música folk volvió a florecer y surgieron dos grupos muy interesantes. Ruper Ordorika, Joseba Tapia y Bixente Martínez formaron el grupo Hiru Truku con el objetivo de recuperar viejas canciones y darlas a conocer de una forma renovada. Solo publicaron tres discos, pero aportaron mucho a la renovación del cancionero vasco. Alboka es el otro grupo. Fue creado por Txomin Artola, Joxean Goikoetxea, Alan Griffin y Josean Martín Zarco para ofrecer música de danza de forma instrumental y acústica.

Por último, los miembros de varios grupos de referencia de la década de 1980 emprendieron su camino en solitario: Gari (Hertzainak), Juan Carlos Pérez (Itoiz), Fermin Muguruza (Kortatu, Negu Gorriak), Anje Duhalde (Errobi) o Xabier Montoia (M-ak). A ellos se unió un conjunto muy fructífero e interesante de solistas: Jabier Muguruza, Anari, Mikel Markez, Mikel Urdangarin, Petti, Txuma Murugarren, Sorkun, Rafa Rueda, Xabaltx, Peio Serbielle, Mikel Errazkin, Morau, Markos Untzeta, Jexuxmai Lopetegi...

## LA ATOMIZACIÓN Y LA AUTOPRODUCCIÓN

Al igual que a nivel internacional, en el País Vasco la crisis de la industria musical ha marcado el inicio del siglo XXI. Internet y el desarrollo de las nuevas tecnologías han dado lugar a nuevos hábitos de difusión

Juan Mari Beltran es un gran investigador de la música popular vasca, además, es músico y experto en diversos instrumentos. Entre otros, toca: txalaparta, chistu, dulzaina, alboka, guimbarda y rabel. Tal y como él señala, en su trayectoria de 40 años, ha fusionado la educación musical del conservatorio con una «cultura de cocina». En la década de los sesenta comenzó con sus primeras investigaciones y sus grabaciones de campo como participante del Laboratorio de Folk Vasco. En la década de los ochenta creó los grupos de folk Azala y Txanbela, con el fin de recuperar y difundir la música popular. De esa misma época es el disco y documental *Euskal Herriko soinu tresnak*, una joya de la etnomusicología vasca. Más tarde, con el acordeonista Joxan Goikoetxea, exploró el camino de la experimentación en dos discos: *Egurraren orpotik dator*... (1993) y *Beti ttun-ttun* (1999), ambos grabados con el productor Suso Saiz, experto en nuevas músicas. En los últimos discos ha continuado mostrando la riqueza de la música popular de los últimos siglos (canciones, bailes...), en compañía de diversos músicos. Ha fundado en Oiartzun (Gipuzkoa) el centro de interpretación y museo denominado *Soinuenea Herri Musikaren Txokoa,* con instrumentos de todo el mundo.

## NEGU GORRIAK

Fue el grupo más representativo de la década de 1990, no solo por su aportación e influencia musical, sino también porque fue el principal dinamizador de la escena vasca de la mano de la discográfica Esan Ozenki. Tras disolverse Kortatu, Fermín e Iñigo Muguruza crearon Negu Gorriak junto con el componente y técnico de sonido del grupo M-ak, Kaki Arkarazo. Si en la época de Kortatu fue imprescindible The Clash, Public Enemy fue fundamental para Negu Gorriak. El trío se sumó a la cultura hip hop y fusionó música, estética (importancia de la imagen) y forma de trabajo. El grupo rompió varias reglas. Por ejemplo, el primer disco fue grabado y publicado sin antes ofrecer ningún concierto. Posteriormente, se convirtió en quinteto con Mikel Abrego (Bap!!) y Mikel Kazalis (Anestesia), e interiorizaron y fusionaron otros estilos de música: salsa, ska, reggae, hardcore... Cada concierto en el País Vasco era todo un acontecimiento y reunía a un gran número de personas. Además, el grupo tuvo gran repercusión en la escena internacional y sus discos del grupo se distribuyeron en Europa, Sudamérica y Estados Unidos. Así, compartió escenario con grandes grupos como: Los Fabulosos Cadillacs, Body Count, Fugazi o Mano Negra.

- *Negu Gorriak* (Oihuka-Esan Ozenki,1990)
- *Gure jarrera* (Esan Ozenki, 1991)
- *Borreroak baditu milaka aurpegi* (Esan Ozenki,1993)
- *Ideia zabaldu* (Esan Ozenki, 1995)

www.negugorriak.net

batzuk barneratu edo fusionatu zituen bere musikan: salsa, ska, reggaea, hardcorea… Euskal Herriko kontzertu bakoitza gertakizun bat zen eta jendetza biltzen zuen, baina nazioartean ere oihartzun handia lortu zuen, taldearen diskoak Europan, Hego Amerikan eta AEBetan ere banatu baitira. Talde handiekin partekatu zuen agertokia: Los Fabulosos Cadillacs, Body Count, Fugazi, Mano Negra…

- *Negu Gorriak* (Oihuka-Esan Ozenki, 1990)
- *Gure jarrera* (Esan Ozenki, 1991)
- *Borreroak baditu milaka aurpegi* (Esan Ozenki, 1993)
- *Ideia zabaldu* (Esan Ozenki, 1995)

www.negugorriak.net

## FERMIN MUGURUZA
## (Irun, Gipuzkoa, 1963)

Euskal kantagintzak eman duen sortzaile eta eragilerik funtsezkoenetakoa da Fermin Muguruza. Lehenik Kortatu eta Negu Gorriak taldeekin eta ondoren bakarlari gisa, autogestioan eta independentzia artistikoan oinarritutako ibilbidea egin du, planteamendu musikal gaurkotua erakutsiz betiere (Kortaturen ska-punketik Negu Gorriaken hip hopera jauzi eginez, eta gerora reggae eta haren aldaeretan murgildurik, baita elektronikan ere), hala kanpora zabaltzeko nola kanpokoa gurera ekartzeko bideak jorratuz. Konplizitate-sare zabala osatu du antzeko kezkak eta jarrera dituzten sortzaileekin eta horrek eraman du ia mundu osoa zeharkatzera, zuzeneko emanaldiak eskaintzeko, diskoak grabatzeko edota bestelako kolaborazioak egiteko. Musikari gisa ez ezik, zinemagile ere aritu da: *Checkpoint Rock* (2009) Palestinako musikari buruzko film dokumentala, *Next Music Station* herrialde arabiarretako musikari buruzko dokumental sorta eta fikziozko bi film –*Zuloak* eta *Black is Beltza*– zuzendu ditu.

- *Brigadistak Sound System* (Esan Ozenki, 1999)
- *In-komunikazioa* (Metak-Kontrakalea, 2002)
- *Euskal Herria Jamaika Clash* (Talka, 2006)
- *Asthmatic Lion Sound Systema* (Talka, 2008)
- *B-Map 1917-2017* (Talka Records & Films / El Segell, 2017)

www.muguruzafm.eus

## SU TA GAR



20

Hogeita hamar urtetik gorako ibilbidea du euskarazko heavy talde aitzindariak. Haren agerpen indartsua, 1990eko hamarkadan jaio berria zela, sekulako ezustea izan zen eta musika eszenaren hurrengo urteetako eraberritzea iragarri zuen. Eibarren (Gipuzkoa) sortutako laukoteak oso gogor jo zuen lehen diskotik, *Jaiotza basatia* (1991). *Jo ta ke, Mari* eta beste hainbat kanturen bidez heavy zaleak ez ziren entzuleengana ere iristea lortu zuen. Su Ta Garren arrakastak estilo bereko beste hainbat talderen sorrera eragin zuen. Taldeak hainbat oztopo aurkitu ditu bidean –istripuak, taldekide aldaketak…– baina kemenez gainditu ditu, hamabi diskoz eta ehunka kontzertuz





## FERMIN MUGURUZA
## (Irun, Gipuzkoa, 1963)



21

Fermin Muguruza es uno de los creadores y precursores fundamentales que ha dado la canción vasca. Primero, con los grupos Kortatu y Negu Gorriak y, más tarde, en solitario, ha desarrollado un recorrido basado en la autogestión y la independencia artística, mostrando en todo momento un planteamiento musical actual (desde el ska-punk de Kortatu hasta el hip hop de Negu Gorriak y, posteriormente, su inmersión en el reggae y sus variaciones, así como en la electrónica). Con todo, en su trayectoria ha difundido la música vasca en el exterior y la música extranjera en la escena vasca. Ha creado una amplia red de complicidades con creadores y creadoras que comparten inquietudes y posiciones similares. Gracias a ello ha ofrecido conciertos por casi todo el mundo, ha grabado discos y también ha realizado otro tipo de colaboraciones. Además de músico, destaca su labor como cineasta. Ha dirigido *Checkpoint Rock* (2009), película documental sobre la música en Palestina; *Next Music Station,* una serie de documentales sobre la música en países árabes; y dos películas de ficción (*Zuloak y Black is Beltza*).

- *Brigadistak Sound System* (Esan Ozenki, 1999)
- *In-komunikazioa* (Metak-Kontrakalea, 2002)
- *Euskal Herria Jamaika Clash* (Talka, 2006)
- *Asthmatic Lion Sound Systema* (Talka, 2008)
- *B-Map 1917-2017* (Talka Records & Films / El Segell, 2017)

www.muguruzafm.eus

## SU TA GAR

Este grupo precursor del heavy en euskera tiene una trayectoria de más de treinta años. Irrumpió con fuerza en la década de los noventa, nada más crearse, y resultó ser una sorpresa inesperada que anunció la transformación que llegaba a la escena musical. El cuarteto creado en Eibar (Gipuzkoa) pisó fuerte desde su primer disco denominado *Jaiotza basatia* (1991). A través de *Jo ta ke*, *Mari* y otras tantas canciones, consiguieron llegar incluso a los y las no aficionadas al heavy. El éxito de Su Ta Gar provocó la creación de otros grupos con el mismo estilo. El grupo ha encontrado más de un obstáculo en el camino (accidentes, cambio de componentes…), pero los ha resuelto con vigor. Su trayectoria, potente y coherente, recoge doce discos y cientos de conciertos.

- *Jaiotze basatia* (IZ, 1991)
- *Sentimenak jarraituz* (Esan Ozenki, 1996)
- *Homo sapiens?* (Gor, 1999)
- *Jainko hilen uharteak* (Jo Ta Ke, 2006)
- *Bizirik gaude* (Jo Ta Ke, 2013)

www.sutagar.com

osaturiko ibilbide sendo eta koherentea osatzeraino.

- *Jaiotze basatia* (IZ, 1991)
- *Sentimenak jarraituz* (Esan Ozenki, 1996)
- *Homo sapiens?* (Gor, 1999)
- *Jainko hilen uharteak* (Jo Ta Ke, 2006)
- *Bizirik gaude* (Jo Ta Ke, 2013)

www.sutagar.com

## BERRI TXARRAK

Hogeita bost urteko ibilbidean mugarik gabeko etenaldi bat egiteko taldearen azken kontzertu-bira 2019ko kultur-gertakizunik jendetsuenetakoa izan zen Euskal Herrian. Mende honetako euskal rockaren erreferente nagusia izan da Berri Txarrak milaka gazterentzat, hainbat arrazoi medio. Batetik, metal, stoner, emo edota pop musikaren osagaiekin proposamen indartsua osatzeko gaitasuna erakutsi du diskoz disko; bestetik, egoera pertsonalak islatu ez ezik, mezu politiko edo sozialen bidez gauzak ezbaian jartzen dituzten letrekin jendearengana iristea lortu du; azkenik, Gorka Urbizu abeslari eta gitarristaren karismak eta musikarekiko pasioak ez diote mugarik jarri taldearen garapenari. Horrela, nazioartean ospetsuak diren ekoizleekin lan egin du hainbat diskotan (Steve Albini, Ross Robinson, Bill Stevenson...) eta birak egin ditu Europan, Asian eta Ipar eta Hego Amerikan.

- *Libre* (Gor, 2003)
- *Jaio.Musika.Hil* (Gor, 2005)
- *Payola* (Roadrunner, 2009)
- *Haria* (Kaiowas Records, 2011)
- *Denbora da poligrafo bakarra* (Only in Dreams, 2014)

www.berritxarrak.net

## JOSEBA TAPIA
## (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1964)


22

Trikiti edo soinu txikiaren berritzaile nagusietako bat da Joseba Tapia. Xabier Berasaluze *Leturia* pandero-jotzailearekin trikitia jotzeko molde berri bat ekarri zuen, tradizioaren ezagutza sakonetik abiatuz. Soinu txikia baserri girotik herrietako kale eta plazetara eraman izana eta beste musika estilo batzuekin nahasten asmatu izana da Tapia eta Leturiaren ekarpen nagusia. *Juergasmoan* (1990) diskoa mugarria izan zen, geroago beste hainbat bikotek bide horretatik joko baitzuten. 1990eko hamarkadaren erdialdean bakarkako bidea egiten hasi zen Joseba Tapia, Leturiarekin egindako dantza-musikatik kantuaren formatura jauzi eginez. Aro horretan hitzari garrantzia handiagoa eman dio Tapiak, kaleratu duen disko bakoitzaren ardatza





## BERRI TXARRAK


23

- *Libre* (Gor, 2003)
- *Jaio.Musika.Hil* (Gor,2005)
- *Payola* (Roadrunner, 2009)
- *Haria* (Kaiowas Records, 2011)
- *Denbora da poligrafo bakarra* (Only in Dreams, 2014)

www.berritxarrak.net

La gira de despedida resultó ser el acontecimiento cultural más multitudinario de 2019 en el País Vasco. Se despidieron sin fecha de vuelta tras veinticinco años en los escenarios. Berri Txarrak ha sido el referente principal del rock vasco en el siglo XXI para millares de jóvenes, y lo ha sido por diferentes motivos. Por un lado, disco tras disco ha demostrado su capacidad para crear una propuesta potente con componentes de la música metal, stoner, emo y pop. Por otro lado, han llegado al público con sus letras que reflejan tanto situaciones personales como mensajes políticos y sociales que ponen en duda el estado de las cosas. Además, el carisma y la pasión por la música del cantante y guitarrista Gorka Urbizu no han puesto ningún límite al desarrollo del grupo. Con todo, en varios de sus discos han trabajado con productores de renombre internacional (Steve Albini, Ross Robinson, Bill Stevenson...) y han realizado giras por Europa, Asia, Norte de América y Sudamérica.

## JOSEBA TAPIA
## (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1964)

Joseba Tapia es uno de los innovadores más importante en el campo de la *trikiti* o acordeón diatónico. Partiendo de un conocimiento profundo de la tradición, junto con el panderetero Xabier Berasaluze *Leturia*, trajo una nueva manera de tocar el acordeón diatónico. La aportación principal de Tapia y Leturia es haber sacado el acordeón diatónico del entorno rural para llevarlo a las calles y plazas de los pueblos, así como mezclarlo con otros estilos musicales. El disco *Juergasmoan* (1990) fue un hito, ya que, posteriormente, otros duetos optaron por seguir por la misma senda. A mediados de la década de los noventa Joseba Tapia decidió abordar su carrera en solitario y abandonó el estilo de música más bailable que realizaba con Leturia y se exploró el formato de la canción. A partir de ahí, Tapia dio más importancia a la palabra que se ha convertido en el eje de cada disco que ha editado. Ha traído al euskera canciones independentistas de Quebec, ha publicado discos compuestos por canciones sobre la guerra y ha musicado letras de sus escritores favoritos: Koldo Izagirre, Bertold Brecht, Gabriel Aresti, Bitoriano Gandiaga...

- *Juergasmoan* (Elkar, 1990)
- *Tapia eta Leturia Band* (Elkar, 1995)
- *Apoaren edertasuna* (Gaztelupeko Hotsak, 1998)
- *Agur Intxorta maite* (Gaztelupeko Hotsak, 2001)
- *Real Politik* (Zakurraren Biolina, 2006)
- Eta tira eta tunba (Zakurraren Biolina, 2010)

www.josebatapia.eus

izateraino. Quebeceko kantu independentistak ekarri ditu euskarara, gerrako kantuez osaturiko diskoak argitaratu ditu eta maite dituen idazleak –Koldo Izagirre, Bertold Brecht, Gabriel Aresti, Bitoriano Gandiaga...– musikatu ditu.

- *Juergasmoan* (Elkar, 1990)
- *Tapia eta Leturia Band* (Elkar, 1995)
- *Apoaren edertasuna* (Gaztelupeko Hotsak, 1998)
- *Agur Intxorta maite* (Gaztelupeko Hotsak, 2001)
- *Real Politik* (Zakurraren Biolina, 2006)
- *Eta tira eta tunba* (Zakurraren Biolina, 2010)

www.josebatapia.eus

## KEPA JUNKERA
## (Bilbo, 1965)

Joseba Tapiarekin batera soinu txikiak edo trikitiak azken bi hamarkadetan ezagutu duen iraultzaren eragileetako bat da Kepa Junkera, nazioartean proiekzio gehien duen euskal musikarietako bat izateaz gain. Hain zuzen, beste musikariekin kolaboratzeko eta trikitiaren soinua beste herri-musiketako tresnekin nahasteko grina berezia erakutsi du Junkerak, eta horrek eraman du mundu osoko jendearekin lan egitera: John Kirkpatrick, La Bottine Souriante, Julio Pereira, Justin Vali, Phil Cunningham... Maila tekniko bikaineko musikari honek Oskorrin eman zituen lehen urratsak, bakarkako ibilbidean nabarmendu aurretik. Bere diskoen artean, *Bilbao 00:00h* (1998) azpimarratzekoa da, laudorio ugari ekarri baitzizkion bertatik zein kanpotik. Euskal kantu tradizionalak atzerriko kantari eta musikariekin grabatu zituen trilogia batean –*Etxea* (2007), *Kalea* (2009) eta *Herria* (2010)– eta Galizia eta Herrialde Katalanetako herri-musikari eskainitako disko monografikoak argitaratu ditu.

- *Kalejira al buk* (Elkar, 1994)
- *Bilbao* 00:00h (Resistencia, 1998)
- *Maren* (EMI, 2001)
- *Hiri* (Elkar, 2006)
- *Kepa Junkera & Sorginak* (FOL Musica, 2014

www.kepajunkera.com

## JABIER MUGURUZA
## (Irun, Gipuzkoa, 1960)



Jabier Muguruza akordeoi-jotzaile eta abeslaria da. Xabier Lete, Imanol Larzabal, Antton Valverde eta beste askoren diskoetan parte hartu du, Les Mecaniciens eta Joxe Ripiau taldeetako kidea izan da, baina bakarlari gisa oso bestelako bidea jorratu du. Intimismoa da, beharbada, Muruguzaren kantagintzari ondoen egokitzen zaion hitza. Batetik, jazz kutsuko sonoritatean biltzen ditu bere kantuak, oso instrumentazio murritza erabiliz –pianoa, akordeoia, baxua, gitarra akustikoa...–, eta estetika musikal horrekin bat egiten dute egunerokotasunaren poetika islatzen duten hitzek. Langintza horretan beste idazleen testuak musikatzera jo du gehienetan: Iñaki Irazu, Bernardo Atxaga,





## KEPA JUNKERA
## (Bilbao, 1965)



Kepa Junkera, junto con Joseba Tapia, es uno de los precursores de la revolución que ha conocido el acordeón diatónico en las últimas dos décadas. Además, es uno de los músicos vascos con mayor proyección a nivel internacional. Precisamente, Junkera ha demostrado un especial interés por colaborar con otros músicos y por mezclar el sonido del acordeón diatónico con otros instrumentos de música populares. Ha colaborado con gente de todo el mundo: John Kirkpatrick, La Bottine Souriante, Julio Pereira, Justin Vali, Phil Cunningham... Antes de destacar en su trayectoria en solitario, este músico de notable nivel técnico dio sus primeros pasos en Oskorri. Entre sus discos destacan Bilbao 00:00h (1998), disco alabado tanto en casa como fuera. Grabó canciones vascas tradicionales con cantantes y músicos extranjeros en una trilogía —*Etxea* (2007), *Kalea* (2009) eta *Herria* (2010)— y ha publicado discos monográficos dedicados a la música popular de Galicia y Cataluña.

- *Kalejira al buk* (Elkar, 1994)
- *Bilbao 00:00h* (Resistencia, 1998)
- *Maren* (EMI,2001)
- *Hiri* (Elkar, 2006)
- *Kepa Junkera & Sorginak* (FOL Musica, 2014)

www.kepajunkera.com

## JABIER MUGURUZA
## (Irun, Gipuzkoa, 1960)

Jabier Muguruza es acordeonista y cantante. Ha participado en discos de Xabier Lete, Imanol Larzabal, Antton Valverde y otros muchos. Ha sido miembro de los grupos Les Mecaniciens y Joxe Ripiau, pero como músico en solitario ha ido por un camino diferente. Tal vez la palabra intimismo es la que mejor explica la canción de Muguruza. Por un lado, Muguruza envuelve sus canciones en una sonoridad con matices de jazz, utilizando una instrumentación muy limitada –piano, acordeón, bajo, guitarra acústica...–, y a esa estética musical se unen palabras que reflejan la poética cotidiana. En la mayoría de los casos ha puesto música a textos de otros escritores: Iñaki Irazu, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Kirmen Uribe, Jose Luis Padron... Muguruza tiene una relación directa con la literatura; ha escrito algunos libros para niños y niñas y también para adultos, y ha ofrecido recitales de poesía junto a Bernardo Atxaga y Patxi Zubizarreta. Asimismo, ha participado en los discos realizados para homenajear a Jackson Browne y Leonard Cohen, además de hacer teatro y cine.

- *Boza barruan* (Elkar, 1994)
- *Aise* (Elkar, 1997)
- *Fiordoan* (Esan Ozenki, 1999)
- *Taxirik ez* (Resistencia, 2009)
- *Tonetti anaiak* (Resistencia, 2015)
- *Leiho bat zabalik* (Mara Mara, 2017)

www.jabiermuguruza.net

Harkaitz Cano, Kirmen Uribe, Jose Luis Padron... Literaturarekin harreman zuzena du Muguruzak, haur eta helduentzako zenbait liburu idatzi baititu eta musika eta poesia errezitaldiak eskaini ditu Bernardo Atxaga eta Patxi Zubizarretarekin. Halaber, Jackson Browne eta Leonard Cohenen omenezko diskoetan parte hartu du, antzerkian eta zineman aritzeaz gain.

- *Boza barruan* (Elkar, 1994)
- *Aise* (Elkar, 1997)
- *Fiordoan* (Esan Ozenki, 1999)
- *Taxirik ez* (Resistencia, 2009)
- *Tonetti anaiak* (Resistencia, 2015)
- *Leiho bat zabalik* (Mara Mara, 2017)

www.jabiermuguruza.net

## ANARI
## (Azkoitia, Gipuzkoa, 1970)

Azken bi hamarkadetan plazaratu eta gehien nabarmendu den rock bakarlarietako bat da Anari Alberdi. Tentsio eta indar emozional handiko kantuak sortzen ditu, geldoak, malenkoniatsuak, tarteka leunak eta marteka gordinak, Nick Cave, Tindersticks edota Thalia Zedek-en eraginekin. Hala ere, musikarengatik bezainbat letren kalitatearengatik ezberdintzen da Anariren kantagintza, barne-sentimenduez hitz egiteko eta naturaren erreferentziak erabiltzeko moduarengatik bereziki. Biolontxeloak pisu handia hartu zuen lehen bi diskoetan –*Anari* (1996) eta *Habiak* (2000)–, baina ondorengo lanetan rock talde finko bat osatu du eta soinu elektrikoago batera jo du.

- *Anari* (Esan Ozenki, 1996)
- *Zebra* (Metak, 2005)
- *Irla izan* (Bidehuts, 2009)
- *Zure aurrekari penalak* (Bidehuts, 2015)

www.anari.eus

## MIKEL URDANGARIN
## (Zornotza, Bizkaia, 1971)



26

Bertsolaritzatik kantagintzara jauzi egindakoa da Mikel Urdangarin. Herri-tradizioarekin (Benito Lertxundi, musika zelta, bertsolaritza...) lotutako kantagintza jorratu zuen hastapenetan, entzulearengan gertutasuna, sosegua eta konfiantza sortzen dituen ahots xuxurlaria lagun, eta berehala aurkitu zuen bere kantuetarako entzule multzo zabal bat. *Badira hiru aste* (1998) da ezagutzera eman zuen diskoa, eta *Espilue* (2000) eta *Heldu artean*-ek (2002) puntako kantautoreen artean jarri zuten. Urteak pasa ahala eta pixkana-pixkana, bere kantuei pop eta rockaren sonoritate elektrikoa eta bestelako giroak erantsi dizkie Urdangarinek, Rafa





## ANARI
## (Azkoitia, Gipuzkoa, 1970)


27

Anari Alberdi es una de las solistas que más ha destacado en las últimas dos décadas en el ámbito de la música rock. Tiene la capacidad de crear canciones con una gran tensión y fuerza emocional, pausadas, melancólicas, en ocasiones suaves, en ocasiones crudas. Entre sus influencias destacan Nick Cave, Tindersticks y Thalia Zedek. No obstante, las canciones de Anari sobresalen tanto por la música como por la calidad de las letras que hablan sobre todo acerca de sentimientos, también destacan por su manera de hacer referencia a la naturaleza. En los dos primeros discos –*Anari* (1996) y *Habiak* (2000)– el violonchelo fue muy importante, pero en sus trabajos posteriores ha conformado un grupo de rock fijo y ha tendido hacia un sonido más eléctrico.

- *Anari* (Esan Ozenki, 1996)
- *Zebra* (Metak, 2005)
- *Irla izan* (Bidehuts, 2009)
- *Zure aurrekari penalak* (Bidehuts, 2015)

www.anari.eus

## MIKEL URDANGARIN
## (Zornotza, Bizkaia, 1971)

Mikel Urdangarin pasó del bertsolarismo al mundo de la canción. En sus comienzos elaboró canciones relacionadas con la tradición popular (Benito Lertxundi, música celta, bertsolarismo...), trabajó la cercanía respecto al oyente ayudado por una voz que parece susurrar y que genera sosiego y confianza. Logró muy pronto hacerse con un amplio público. *Badira hiru aste* (1998) es el disco con el que se dio a conocer y tanto *Espilue* (2000) como *Heldu artean* (2002) lo colocaron entre los cantautores vascos más destacados. A medida que han pasado los años, poco a poco, Urdangarin ha añadido a sus canciones un sonido pop y rock, así como otros giros con la ayuda del guitarrista Rafa Rueda. Además de su trabajo en solitario, junto con Rafa Rueda, el escritor Kirmen Uribe y el ilustrador Mikel Valverde, ha desarrollado algunos proyectos que unen poesía, música y video: *Bar Puerto* y *Zaharregia, txikiegia agian*.

- *Badira hiru aste* (Gaztelupeko Hotsak, 1998)
- *Espilue* (Gaztelupeko Hotsak, 2000)
- *Heldu artean* (Gaztelupeko Hotsak, 2002)
- *Zubia* (Baga Biga, 2009)
- *Margolaria* (Elkar, 2017)

www.mikelurdangarin.eus

Rueda gitarristaren laguntzaz. Bakarkako ibilbideaz gain, poesia, musika eta bideogintza uztartzen dituzten zenbait proiektutan aritu da, Rafa Ruedarekin, Kirmen Uribe idazlearekin eta Mikel Valverde ilustratzailearekin: *Bar Puerto* eta *Zaharregia, txikiegia agian*.

- *Badira hiru aste* (Gaztelupeko Hotsak, 1998)
- *Espilue* (Gaztelupeko Hotsak, 2000)
- *Heldu artean* (Gaztelupeko Hotsak, 2002)
- *Zubia* (Baga Biga, 2009)
- *Margolaria* (Elkar, 2017)

www.mikelurdangarin.eus

## GLAUKOMA

Glaukoma rap-reggae talde bat da, bi estilo hauek inguratzen dituzten musika-estilo beltz ezberdinetatik edaten duena –roots reggae gozoenetik jungle gogorrenera, raparen gordintasunetik eta raggamuffin melodikoenetik igarota–, baina rock formatua duena: ahotsa, bi gitarra, baxua eta bateria. Glaukomaren musika primeran ezkontzen da Juantxo Arakama abeslariak hainbat gai sozialen inguruko mezu eta hausnarketa kritikoak zabaltzeko idazten dituen hitzekin.

- *Vol.1* (Bonberenea Ekintzak, 2012)
- *Vol. 2* (Bonberenea Ekintzak, 2013)
- *Kalima* (Bonberenea Ekintzak, 2017)

www.glaukomaband.com

## MURSEGO
## (Elgoibar, Gipuzkoa, 1977)


28

Maite Arroitajauregi musikariaren izen artistikoa da Mursego. Musika tradizionaletik abiatuz (Euskal Herrikoa, Latinoamerikakoa zein Europa ekialdekoa), erabat garaikidea den etiketarik gabeko unibertso propioa sortu du Mursegok, zeinean esperimentazioa, jolasa, umorea eta irudimena osagai garrantzitsuak diren. Biolontxelo-jotzailea da Mursego, baina konposizioak osatzeko bestelako tresnak gehitzen ditu *looper* gailua erabiliz –teklatuak, ukelelea, txirula, ahotsa, txaloak...– . Mursegoren jarduna ez da bere diskoetara mugatzen; musika sortu du idazleekin, artista plastikoekin eta dantzariekin egindako ikuskizunetarako zein filmetarako (*Emak Bakia, Amama* eta *Akelarre*).

- *Bat* (Bidehuts, 2009)
- *Bi* (Bidehuts, 2010)
- *Hiru* (Bidehuts, 2013)
- *100% Oion* (Bidehuts, 2017)

www.mursego.bandcamp.com





## GLAUKOMA


29

Glaukoma es un grupo de rap-reggae que bebe de los distintos estilos de música negra que rodean a estos dos estilos —desde el más dulce roots reggae hasta el más duro jungle, pasando por la crudeza del rap y el raggamuffin melódico—, pero siempre con un formato rockero: voz, dos guitarras, bajo y batería. La música de Glaukoma casa perfectamente con las letras que escribe el cantante Juantxo Arakama sobre temas sociales con las que pretenden difundir mensajes y reflexiones críticas.

- *Vol.1* (Bonberenea Ekintzak, 2012)
- *Vol. 2* (Bonberenea Ekintzak, 2013)
- *Kalima* (Bonberenea Ekintzak, 2017)

www.glaukomaband.com

## MURSEGO
## (Elgoibar, Gipuzkoa, 1977)

Mursego es el nombre artístico de la cantante Maite Arroitajauregi. Partiendo de la música tradicional (País Vasco, Latinoamérica y Europa del Este), Mursego ha creado un universo propio totalmente contemporáneo en el que, bajo ninguna etiqueta, abundan la experimentación, el juego, el humor y la imaginación. Mursego es violonchelista, pero para completar sus composiciones añade otro tipo de instrumentos (teclado, ukelele, flauta, voz, aplausos...) ayudada por un *looper*. La actividad de Mursego no se reduce a sus discos. Ha creado música con escritoras y escritores, artistas plásticos y bailarinas y bailarines para espectáculos y cine (*Emak Bakia, Amama* y *Akelarre*).

- *Bat* (Bidehuts, 2009)
- *Bi* (Bidehuts, 2010)
- *Hiru* (Bidehuts, 2013)
- *100% Oion* (Bidehuts, 2017)

www.mursego.bandcamp.com

## IZARO
## (Mallabia, Bizkaia, 1993)

Youtubera igotako kantu baten bidez ezagutu genuen Izaro Andres Zelaieta, 2015ean. Geroztik gertatutakoak ez du aurrekaririk euskal kantagintzan, hain denbora laburrean horren arrakasta handia lortu duen kantari gazte baten beste kasurik ez baitago. Lau urtean hiru disko grabatu ditu eta Euskal Herriko agertoki handiak bete ditu, baita gure mugetatik kanpo zabalpena lortu ere. Hiru hizkuntzatan –euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez– abesten ditu Izarok bere pop melodia gardenak, entzuleari laztan egiten dion ahots leun eta eder baten bidez.

- *Om* (Egilea editore, 2016)
- *Eason* (Egilea editore, 2018)
- *Limones en invierno* (Egilea editore, 2020)

www.izaromusic.com

## GATIBU


30

Gatibu 2000. urtean sortu zen Gernikan (Bizkaia). Taldekideetako bat, Alex Sardui abeslaria, 1990eko hamarkadan arrakasta itzela lortu zuen talde bateko partaide izan zen: Exkixu taldekoa. Haren ondoan, Haima Arejitak (gitarra), Mikel Caballerok (baxua) eta Gaizka Salazarrek (bateria) osatzen dute taldea. Gatiburen berezitasunetako bat, taldeari jarraitzaile asko ekarri dizkiona, bizkaieraren erabilera da. Rock&roll kantu freskoak eskaintzen ditu Gatibuk, zuzenak eta itsaskorrak, gauaz eta sexuaz mintzo direnak gehienbat. *Zoramena* lehen diskoak (2002) ezohiko salmenta kopuruak lortu zituen, eta *Musturrek sartunde* kantuak harrera itzela izan zuen. Diskoz disko eutsi egin dio zaleen onarpenari.

- *Zoramena* (Oihuka, 2002)
- *Disko Infernu* (Oihuka, 2005)
- *Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik* (Baga Biga, 2008)
- *Euritan dantzan* (Egilea editore, 2014)

www.gatibu.eus





## IZARO
## (Mallabia, Bizkaia, 1993)


31

Izaro Andres Zelaieta se dio a conocer a través de una canción subida a YouTube en 2015. Lo que sucedió después no tiene precedentes en la canción vasca. No hay en la escena vasca ninguna cantante joven que haya logrado semejante éxito. En cuatro años ha grabado tres discos y ha llenado grandes escenarios en el País Vasco. Fuera de nuestras fronteras también ha tenido su difusión. Izaro canta en tres idiomas (castellano, euskera e inglés) sus melodias de pop diáfano con una voz dulce y bonita que acaricia al oyente.

- *Om* (Egilea editore, 2016)
- *Eason* (Egilea editore, 2018)
- *Limones en invierno* (Egilea editore, 2020)

www.izaromusic.com

## GATIBU

Gatibu se formó en el año 2000 en Gernika (Bizkaia). Un componente, el cantante Alex Sardui, formó parte antes de un grupo que tuvo un gran éxito en la década de 1990: Exkixu. Junto a él conforman el grupo Haima Arejita (guitarra), Mikel Caballero (bajo) y Gaizka Salazar (batería). Una de las características de Gatibu, que ha atraído gran número de seguidores y seguidoras al grupo, es la utilización del euskera vizcaíno. Gatibu ofrece canciones frescas, directas y pegadizas de rock&roll que hablan sobre todo de la noche y el sexo. Su primer disco titulado *Zoramena* (2002) logró un número de ventas extraordinario y la canción *Musturrek sartunde* consiguió una acogida impresionante. Disco a disco sigue obteniendo el reconocimiento de sus seguidores.

- *Zoramena* (Oihuka, 2002)
- *Disko Infernu* (Oihuka, 2005)
- *Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik* (Baga Biga, 2008)
- *Euritan dantzan* (Egilea editore, 2014)

www.gatibu.eus

## ZEA MAYS

Denbora aurrera joan ahala, Zea Mays taldea itzulerarik gabeko heldutasun puntu batera heldu da. Aiora Renteria abeslariaren ahotsa da oraindik ere taldearen nortasunaren oinarria, baina gauza asko aldatu dira 1997tik, Bilboko lau musikariok lehenengo aldiz bildu zirenetik. Sendotasuna eta energia dira rock arima duen talde honen ezaugarri nagusiak. Hainbat disko argitaratu ditu ia 25 urteko ibilbidean, eta mende honetako euskal abestirik arrakastatsuenetakoa bat utzi du: *Negua joan da ta.*

- *Elektrizitatea* (Gor, 2000)
- *Sortuz, grabitatearen aurka,* (Oihuka, 2005)
- *Era* (Bonberenea Ekintzak, 2010)
- *Atera* (Garden Records, 2019)

www.zea-mays.com

## WILLIS DRUMMOND



32

2004an sortua, taldekide aldaketek ez dute Baionako talde honen lan erritmo bizia geldiarazi. Hastapenetan 1970eko hamarkadako hard-rockaren eta Fugazi bezalako hardcore taldeen uztarketa gisa definitua izan zen bere musika, baina urteak igaro ahala giro eta ertz berriek eman diote forma taldearen nortasunari. Zuzenekoak dira Willis Drummonden musikaz gozatzeko testuingururik aproposena, bertan kanporatzen baitu bere indar eta energia guztia.

- *Willis Drummond* (Bidehuts, 2008)
- *Istanteak* (Bidehuts, 2011)
- *A ala B* (Bidehuts, 2012)
- *Zugzwang* (Tabula rasa, 2019)

www.willisdrummond.net





## ZEA MAYS



33

Con el paso del tiempo, el grupo Zea Mays ha llegado a un punto de madurez sin retorno. La voz de la cantante Aiora Renteria sigue siendo la seña de identidad del grupo, pero han cambiado muchas cosas desde 1997, fecha en la cual se reunieron por primera vez estos cuatro músicos de Bilbao. Fuerza y energía son las principales características de este grupo con alma rockera. En su trayectoria de casi 25 años, han sacado a la luz diversos discos y han dejado uno de los grandes éxitos de este siglo: *Negua joan da ta*.

- *Elektrizitatea* (Gor, 2000)
- *Sortuz, grabitatearen aurka,* (Oihuka, 2005)
- *Era* (Bonberenea Ekintzak, 2010)
- *Atera* (Garden Records, 2019)

www.zea-mays.com

## WILLIS DRUMMOND

Se fundó en 2004 y los cambios en los componentes de este grupo de Bayona no han paralizado su ritmo. Su música fue definida en sus inicios como una unión del hard-rock de los años setenta con grupos de hardcore como Fugazi. Sin embargo, con el paso del tiempo nuevos ambientes y matices han dado forma a la personalidad del grupo. Destacan sus directos, donde Willis Drummond exterioriza toda su fuerza y energía.

- *Willis Drummond* (Bidehuts, 2008)
- *Istanteak* (Bidehuts, 2011)
- *A ala B* (Bidehuts, 2012)
- *Zugzwang* (Tabula rasa, 2019)

www.willisdrummond.net

## KEN ZAZPI

Itoiz taldeaz geroztik ez da Euskal Herrian halako harrera komertzial onik izan duen beste pop-rock talderik izan. Ken Zazpi belaunaldi ezberdinetako entzuleengana iritsi da, nerabeengandik gurasoenganaino, kutsu epikoko melodia gardenen bidez eta sentimenduez zein engaiamendu politikoaz mintzo diren hitz poetikoak erabiliz. Horretarako, Joseba Sarrionandia idazlearen poemak musikatu ditu zenbaitetan. Gernikan (Bizkaia) sortu zen taldea, eta lehen diskoarekin, *Atzo da bihar* (2001), ezohiko harrera ona izan zuen, baina *Bidean* diskoak (2003) zabaldu zuen Ken Zazpiren izena lau haizeetara, *Haizea* eta *Ilargia* kantuek izandako arrakasta itzelari esker. Geroztik seikoteak bere estiloa finkatu eta findu egin du, entzuleak hunkitzen dituzten kantu ugari sortu ditu (*Zapalduen olerkia, Noizbait, Ez nau izutzen, Gernikan*...) eta Euskal Herriko aretoak eta antzokiak bete ditu. Taldeko abeslari Eñaut Elorrieta ere nabarmendu da bakarlari gisa, harrera oneko bi disko kaleratuta: *Deserriko kantak* (2013) eta *Irteera argiak* (2019).

- *Bidean* (Gor, 2003)
- *Argiak* (Oihuka, 2007)
- *Ortzemugak begietan* (Elkar-Argiak, 2010)
- *Phoenicoperus* (Elkar-Argiak, 2015)

## BIDE ERTZEAN


34

Euskal poesia garaikidea pop musikaren esparrura eraman izana da Bide Ertzeanek egindako ekarpenetako bat. Jose Luis Otamendi, Kirmen Uribe, Mikel Ibarguren, Iñigo Aranbarri eta Juanra Madariagaren olerkiak, besteak beste, musikatu ditu Tolosako (Gipuzkoa) taldeak. Beraz, hitzak oso garrantzitsuak diren talde bati buruz ari gara. Imanol eta Joni Ubeda anaiek (Deabruak Teilatuetan) eta Karlos Aranzegik sortu zuten 1998an, baina Fran Iturbe eta Joserra Senperena ere oso garrantzitsuak izan dira taldearen garapenean. Ipar Amerikara (The Jayhawks, Wilco, Big Star, Neil Young...) dagoen pop-rock klasiko eta dotorea landu du Bide Ertzeanek, melodietan eta moldaketetan arreta handia jartzen duena. Hamar diskok osatzen dute Bide Ertzeanen orain arteko emaria. Imanol Ubeda abeslariak bakarkako proiektua sortu du, Don Inorrez izenekoa.

- *Zure minari* (Gaztelupeko Hotsak, 1999)
- *Non dira* (Gaztelupeko Hotsak, 2006)
- *Don Inorrez* (Gaztelupeko Hotsak, 2010)
- *77* (Gaztelupeko Hotsak, 2013)

www.bidertzean.com





## KEN ZAZPI


35

- *Bidean* (Gor, 2003)
- *Argiak* (Oihuka, 2007)
- *Ortzemugak begietan* (Elkar-Argiak, 2010)
- *Phoenicoperus* (Elkar-Argiak, 2015)

Tras Itoiz, no ha existido en el País Vasco un grupo de pop-rock con semejante acogida comercial. Ken Zazpi ha llegado a distintas generaciones de público, desde adolescentes hasta sus padres, a través de nítidas melodías con un matiz épico. Sus poéticas letras hablan de sentimientos y de compromiso político. En ocasiones han musicado poemas del escritor Joseba Sarrionandia. El grupo se creó en Gernika (Bizkaia) y su primer disco (*Atzo da bihar*, 2001) tuvo una muy buena acogida. No obstante, fue el disco *Bidean* (2003) el que lo catapultó gracias sobre todo al enorme éxito de las canciones *Haizea* e *Ilargia*. Posteriormente, el sexteto ha fijado y refinado su estilo y ha creado multitud de canciones (*Zapalduen olerkia, Noizbait, Ez nau izutzen, Gernikan*...) capaces de emocionar al público. Han llenado salas y teatros del País Vasco. Eñaut Elorrieta, el cantante del grupo, también ha destacado en solitario con sus dos discos: *Deserriko kantak* (2013) y *Irteera argiak* (2019).

## BIDE ERTZEAN

Una de las aportaciones realizadas por Bide Ertzean ha sido traer la poesía contemporánea vasca al ámbito de la música pop. El grupo de Tolosa (Gipuzkoa) ha puesto música, entre otros, a poemas de Jose Luis Otamendi, Kirmen Uribe, Mikel Ibarguren, Iñigo Aranbarri y Juanra Madariaga. Estamos ante un grupo para el cual las letras son muy importantes. El grupo lo crearon en 1998 los hermanos Imanol y Joni Ubeda (Deabruak Teilatuetan) junto con Karlos Aranzegi, pero Fran Iturbe y Joserra Senperena también han sido muy importantes en su trayectoria. Mirando a América del Norte (The Jayhawks, Wilco, Big Star, Neil Young...), el grupo Bide Ertzean ha trabajado el ámbito del pop-rock clásico y elegante, y ha puesto gran énfasis en melodías y arreglos. Bide Ertzean ha publicado diez discos. El cantante Imanol Ubeda ha creado un proyecto en solitario denominado *Don Inorrez*.

- *Zure minari* (Gaztelupeko Hotsak, 1999)
- *Non dira* (Gaztelupeko Hotsak, 2006)
- *Don Inorrez* (Gaztelupeko Hotsak, 2010)
- *77* (Gaztelupeko Hotsak, 2013)

www.bidertzean.com

## MADDI OIHENART
**(Barkoxe, Zuberoa, 1956)**

Kantari berantiarra dugu Maddi Oihenart, ekoizpen-diskografiari dagokionez bederen. Abesteko zaletasuna eremu pribatuan gorde izan du urte luzez, harik eta kantu txapelketa baten harira kontzertuak ematen hasi zen arte. Haren ahotsaren edertasuna ez zen oharkabean pasa entzuleentzat. Zuberoan *a cappella* kantatzeko duten modu tradizionala eta gaur egungoa uztartzen dira Oihenarteren abestigintzan, jazz kantari handienak (Billie Holiday, Ella Fitzgerald...) gogora ekartzen dituen naturaltasun eta sentiberatasun apartaz. Ez da harritzekoa, beraz, jazz musikarien alboan (Josetxo Goia-Aribe, Juantxo Zeberio....) topatu izana Oihenartek bere kantu askerako eremu egokia. Hala ere, Juan Mari Beltran, Kepa Junkera eta Pello Serbielleren diskoetan ere parte hartu du, besteak beste.

- *Ilhargi-min* (Metak, 2005)
- *Hari biru* (Elkar, 2007)
- *Baldi* (No-CD Rekords, 2010)
- *Doi* (Reseda Diskak, 2015)





## MADDI OIHENART
**(Barkoxe, Zuberoa, 1956)**


36

Maddi Oihenart es una cantante tardía, por lo menos en lo que a producción discográfica se refiere. Durante muchos años ha mantenido su afición por el canto en el ámbito privado, hasta que gracias al concurso de canto *Harik eta* comenzó a dar conciertos. La belleza de su voz no pasó desapercibida. En las canciones de Oihenart se combina la tradicional forma de canto *a capella* suletina con la canción actual, caracterizada por la espectacular naturalidad y sentimiento que hacen recordar a grandes cantantes de jazz: Billie Holiday, Ella Fitzgerald... No es de extrañar que Oihenart haya encontrado junto a músicos de jazz (Josetxo Goia-Aribe, Juantxo Zeberio...) el espacio idóneo para su canción. Además, ha participado en discos de Juan Mari Beltran, Kepa Junkera y Pello Serbielle, entre otros.

- *Ilhargi-min* (Metak, 2005)
- *Hari biru* (Elkar, 2007)
- *Baldi* (No-CD Rekords, 2010)
- *Doi* (Reseda Diskak, 2015)

# Bibliografia
# Bibliografía


- Aristi, Pako (2020): *Euskal kantagintza berria. 1961-1985*. Donostia: Erein.
- Arrieta, Ibai; Iturriaga, Eider; Cano, Harkaitz (2019): *Berri Txarrak. Berba eta irudia*. Iruñea: Only in Dreams.
- Barandiaran, Gotzon (2018): *Hitzen ahairea*. Zarautz: Susa.
- Bastida, Mari Sol (2014): *Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat.* Donostia: Elkar.
- Berasaluze Leturia, Xabier (2019): *Tarrapatan. Pandero baten ibilbidea.* Donostia: Elkar.
- Biosca, Marc (2009): *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka?* Irun: Alberdania.
- Borda, Xabi (2006): *Jotakie, Urolan pop.* Soraluze: Paper Hotsak.
- Del Amo, Ion Andoni (2016): *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskal Herria*. Iruñea: Txalaparta.
- Eskisabel, Jon (2005): *Itoiz, hari xingle bat.* Soraluze: Paper Hotsak.

  (2016): *Bide Ertzean, zutaz kantatzeko.* Soraluze: Gaztelupeko Hotsak.
- Feito, Alvaro (2006): *Benito Lertxundi, Orioko bardoa*. Madril: La Voz del Folk.
- Gorostidi, Juan (2011): *Lau kantari: Beñat Achiary, Mikel Laboa, Imanol Larzabal eta Ruper Ordorika.* Iruñea: Pamiela.
- Herreros, Roberto; LOPEZ, Isidro (2013): *El estado de las cosas de Kortatu. Lucha, fiesta y guerra sucia*. Madrid: Lengua de Trapo.
- Irazu, Alberto (2017): *Rocka puntua!*. Iruñea: Pamiela.
- Itzaina, Mixel (2000). *Mixel Labéguerie, kantu berritzaile eta politika gizona*. Baiona: Elkar.
- Larraburu, Colette; Etxeberry-Aintxart, Peio (2001): *Euskal rock'n'rolla. Histoire du rock basque*. Miarritze: Atlantica.
- Larrinaga, Josu (2016): *Euskal musika kosmikoak.* Mungia: Baga-Biga Musika Ideiak.
- Lopez Agirre, Elena; Espinosa, Pedro (2013): *Hertzainak, la confesión radical.* Pepitas de Calabaza & Aianai.
- Lopez Agirre, Elena (1996): *Del txistu a la telecaster. Crónica del rock vasco.* Gasteiz: Aianai.

(2011): *Historia del rock vasco*. Gasteiz: Aianai.

(2015): *Neskatxa maite. 25 mújeres que la música vasca no debería olvidar*. Gasteiz: Aianai.

- Mariezkurrena Fernandez, Igone (2017): *Aho bete doinu #3. Musika eta generoa.* Iruñea: Komunikazioa Eragin.
- Moso, Roberto (2004): *Loreak Zaraman. Rock erradikal egunak*. Santurtzi: Hilargi.
- Oronoz, Belen (2000): *Gazteri berria, kantagintza berria*. Donostia: Erein.
- Oskorri (1990): *Oskorri, ehun ta hamaikatxo kantu.* Donostia: Elkar.
- Pascual, Jakue (2015): *Movimiento de resistencia. Años 80 en Euskal Herria. Contexto, crisis y punk*. Iruñea: Txalaparta.
- Salgado Mendez, Pablo (2019): *Dut.* Portugalete: Banizu Nizuke.
- Ubeda, Garbiñe (1995): *Negu Gorriak. Ideia Zabaldu Tour '95*. Zarautz: Susa.
- Ubeda, Joxi (2006): *Bap!!, bai ederki.* Soraluze: Paper Hotsak.
- Zabala, Juan Luis (2003): *Jesus Mari Artze, ttakunaren esku isila*. Usurbil: Zumarte.
- Zenbaiten artean / Varios autores (2000): *Aho bete doinu. Euskal musikagintzaren iragana, oraina eta geroari buruzko elkarrizketak*. Iruñea: Komunikazioa Eragin.
- Zenbaiten artean / Varios autores (2016): *Aho bete doinu #2. Euskal musikagintzaren iragana, oraina eta geroari buruzko elkarrizketak.* Iruñea: Komunikazioa Eragin.
- Zenbaiten artean / Varios autores (2011): *Azaletik sustraietara. Euskal musikaren azalak 1960-2010*. Bilbo: Emankor Sarea.
- Zenbaiten artean / Varios autores (1994): *Mikel Laboa, azti ahotsa.* Donostia: Elkar-AEK.
- Zenbaiten artean / Varios autores (2000): *Kepa Junkera, trikitixa*. Bilbo: BBK Fundazioa.

SAREAN / EN LA RED

- www.badok.eus
- musikabulegoa.eus
- www.musikazuzenean.com
- www.entzun.eus



## Jon Eskisabel Urtuzaga (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1969)

Kazetaria, euskal kantagintzari buruzko *Badok.eus* atariaren arduraduna da. Aurretik *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* egunkarietan lan egin zuen hainbat urtez. *Itoiz, hari xingle bat* (Paper Hotsak, 2005) eta *Bide Ertzean. Zutaz kantatzeko* (Gaztelupeko Hotsak, 2016) liburuak idatzi ditu. Halaber, *Aho bete doinu. Euskal kantagintzaren iragana, oraina eta geroari buruzko elkarrizketak* (Komunikazioa Eragin, 2000) liburuaren egileetako bat da eta Mikel Laboa eta Itoizi buruzko ikus-entzunezko lanetan parte hartu du.

Es periodista y actualmente es el responsable del portal *Badok.eus* sobre canción vasca. Ha trabajado en los periódicos *Euskaldunon Egunkaria* y *Berria*. Ha escrito los siguientes libros: *Itoiz, hari xingle bat* (Paper Hotsak, 2005) y *Bide Ertzean. Zutaz kantatzeko* (Gaztelupeko Hotsak, 2016). Asimismo, es uno de los autores del libro titulado *Aho bete doinu. Euskal kantagintzaren iragana, oraina eta geroari buruzko elkarrizketak* (Komunikazioa Eragin, 2000) y ha participado en la elaboración de audiovisuales sobre Mikel Laboa e Itoiz.


**KREDITUAK / CRÉDITOS**

**Euskal Kultura sailaren edizioa**
**Edición de la Colección Cultura Vasca**
Etxepare Euskal Institutua

**Testua / Texto**
Jon Eskisabel Urtuzaga CC BY-NC-ND

**Gaztelaniazko itzulpena**
**Traducción castellano**
Euskalgintza

**Edizioa / Edición**
Miriam Luki Albisua

**Maketazioa / Maquetación**
Infotres

**Diseinua / Diseño**
Mito.eus

**Azaleko argazkia / Foto de portada**
Zea Mays. Txelu Angoitia – Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga

**Argitalpen urtea / Año de publicación**
2021

**Argazkiak / Fotos**

1. Txelu Angoitia – Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga.
2. www.eke.eus
3. Badok.info. CC BY 3.0
4. Mertxe Ezeiza & Txomin Artola.
5. Etxepare Euskal Institutua.
6. Conny Beyreyther.
7. ©Elkar Argitaletxeak SL.
8. Rubén Plaza.
9. © Elkar Argitaletxeak SL.
10. www.eke.eus
11. © Elkar Argitaletxeak SL.
12. © Elkar Argitaletxeak SL.
13. © Elkar Argitaletxeak SL.
14. Mikel Alonso. © Elkar Argitaletxeak SL.
15. Ramon M. Zabalegi. © Elkar Argitaletxeak SL.
16. © Elkar Argitaletxeak SL.
17. Anjel Katarain. © Elkar Argitaletxeak SL.
18. Susana Prieto. © Elkar Argitaletxeak SL.
19. Ander Gillenea. © Elkar Argitaletxeak SL.
20. Galder Izagirre.
21. Alex Rademakers.
22. Galder Izagirre. Gaztelupeko Hotsak.
23. Ibai Arrieta.
24. David Sagasta.
25. Aitor Ortiz. © Elkar Argitaletxeak SL.
26. Josu Izarra. © Elkar Argitaletxeak SL.
27. Juan de Andrés.
28. Etxepare Euskal Institutua.
29. Josetxo Perez.
30. Txelu Angoitia – Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga.
31. Helena de Wind.
32. Jon Iraundegi.
33. Josetxo Perez.
34. Joseba Barrenetxea. Gaztelupeko Hotsak.
35. Lander Garro. © Elkar Argitaletxeak SL.
36. Bob Edme.

**LG D 01207-2020**

**Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien eskutik, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura-sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietan Euskadiko kanpo ordezkaritzak gertuko bidelagun ditugu.

**Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua es una entidad pública. Nuestro fin es promover y dar a conocer internacionalmente el euskera, la cultura y la creación vascas, y construir relaciones duraderas con otros países y culturas a través de ellas. Para ello fomentamos actividades artísticas de calidad, y apoyamos la movilidad de creadores/as, artistas y profesionales de los sectores culturales, así como la enseñanza del euskera y de la cultura vasca. Fomentamos, asimismo, la colaboración con agentes internacionales tanto en el ámbito cultural como en el académico. En todo ello trabajamos en estrecha colaboración con las delegaciones de Euskadi en el exterior.

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

BASQUECULTURE.EUS
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok joritua, Europak duen balio handienetako bat da. BASQUE. lurralde baten isla da (euskararen lurraldearena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraiez harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. BASQUE. euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitzeko eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarrizketa berriei bide emateko.

Los europeos compartimos una rica herencia cultural como resultado de siglos de intercambio y flujos migratorios. La diversidad lingüística y cultural es uno de los principales valores de Europa a la que todas y todos contribuimos desde nuestra singularidad. BASQUE. es el reflejo de un país (la tierra del euskera), de una historia, de una manera de entender el mundo, la nuestra. La expresión de una cultura orgullosa de sus raíces que ha sabido abrazar tradición y vanguardia para ofrecer una nueva mirada. BASQUE. es una ventana desde la que asomarse y descubrir la cultura y la creación contemporánea vasca a través de la música, la danza, el teatro, el cine, la literatura, el arte… Y su lengua, el euskera. Y, a su vez, un lugar abierto a la creatividad desde el que compartir, tender puentes y generar nuevas conversaciones que contribuyan al diálogo entre culturas.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA